

**2020KO OTSAILAREN 26KO  
BATZAR NAGUSIAREN  
ITZULPENA**

**TRADUCCIÓN  
DE LA SESIÓN PLENARIA  
DE FECHA  
26 DE FEBRERO DE 2020**

## **AURKIBIDEA**

	<u><b>Orrialdea</b></u>
- Batzarra hasi da.....	4
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau: “Ekintzaitetzako Nazioarteko Zentroa Bizkaia Torrean martxan jartea.”	4
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	4
- Ekonomia Sustatzeko foru diputau Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea.....	7
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	8
- Ekonomia Sustatzeko foru diputau Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea.....	9
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau: “Trisgarritasun unibertsala eta pertsona guztientzako aukera-bardintasuna bermatze aldera garraio publikoan abian jarri beharreko neurriak.”.	10
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea.....	11
- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatu Gómez Viar jaunak hartu dau berbea .....	13
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea.....	15
- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatu Gómez Viar jaunak hartu dau berbea .....	16
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau: “Zaldibarko Verter Recycling zaborteziaren hondamendiak eragindako ondorioak.”.....	17
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	17
- Ahaldu Nagusi Rementería Maiz jaunak hartu dau berbea.....	19
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	21
- Ahaldu Nagusi Rementería Maiz jaunak hartu dau berbea.....	23
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau: “Pobrezia eta gizarte-bazterketa.”.....	24
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea.....	24

- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatu Laespada Martínez andreak hartu dau berbea.....	26
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea.....	29
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatu Laespada Martínez andreak hartu dau berbea.....	29
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau: “Bizkaian langabezia murrizteko hartu beharreko neurriak.” .....	30
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	30
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatu Laespada Martínez andreak hartu dau berbea.....	30
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	31
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatu Laespada Martínez andreak hartu dau berbea.....	32
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau: “Zaintzaileen Estatutuan planteaturiko hainbat neurri zaintzaile formalei zabaltzea.”.....	33
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea.....	33
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	33
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea.....	34
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	35
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zazpigarren puntua irakurri dau: “Foru Gobernuak Zaldibarko hondamendia kudeatzeko aurrera eroan dituan ekintzak.” .....	35
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea .....	35
- Ahaldun Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea.....	36
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea .....	36
- Ahaldun Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea.....	38
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zortzigarren puntua irakurri dau: “Foru Gobernuak lurralderako proiektuak aurkezteko daukan modua.”	38

- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	38
- Ahaldu Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea.....	39
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	40
- Ahaldu Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea.....	40
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bederatzigarren puntua irakurri dau: “Gazte lugatxera joateko Bizkaibus zerbitzuak.” .....	41
- EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea	41
- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatu Gómez Viar jaunak hartu dau berbea .....	41
- EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea	42
- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatu Gómez Viar jaunak hartu dau berbea .....	42
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hamargarren puntua irakurri dau: “Errekaldeko metroko linearen informazio-azterlana.”.....	42
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	43
- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatu Gómez Viar jaunak hartu dau berbea .....	43
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	44
- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatu Gómez Viar jaunak hartu dau berbea .....	45
- Batzarra amaitu da.....	45

2020ko otsailaren 26ko batzarra goizeko 09:30ean hasi da.

Se inicia la sesión del 22 de febrero de 2020 a las 09:30 horas.

Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Para dar comienzo a la Junta General de Control de febrero, bienvenidos y bienvenidas sean el Diputado General, diputados, los junteros, todas las personas que nos acompañan en las tribunas de invitados, así como los miembros de los medios de comunicación, y todas las persona que seguirán esta Junta General oir streaming. A todos buenos días y bienvenidos.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jauna:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Interpelación  
([R.E.11/E/2020/0000302](#))

**Autor:** Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

**Asunto:** La puesta en marcha de un Centro Internacional de Emprendimiento en la Torre de Bizkaia.

**Documento Principal:**  
([R.E.11/E/2020/0000302](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (19A)

**Expediente:** ([11/B/18/0000816](#))

1.- Hurrengo idatziari buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan eretxi ezker, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itauna  
([11/E/2020/0000302SE](#))

**Egilea:** Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

**Gaia:** Ekintzailtzako Nazioarteko Zentroa Bizkaia Torrean martxan jarrea.

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2020/0000302SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (19A)

**Espediente:** ([11/B/18/0000816](#))

Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del grupo juntero que ha presentado la iniciativa; por lo tanto, señora Fernández Angulo, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Mahaiburu andrea, mahaiko kideak, ahaldunak. Egun on guztioi, buenos días a todos

Gaur Ganbera honetan ez dogu jorratuko arazo tekniko bategaz zerikusia daukan gai bat, prozedurazko kontu bat, edo ondorio ustebako eta arraro bat sortu dauen astroen eta konstelazioen lerrotatze bat, ez. Bizkaia Torrearen porrota ikuspegi errealista eta zintzo batetik jorratu behar da, eta arduradun publikoenak baino gehiago ilusionisten jarrerren antz handiagoa dauken jarreretatik alde eginda.

Bizkaiko Ahaldun Nagusiak, Rementeria jaunak, hileak, urteak eroan ditu ekintzailtzaren Guggenheimen jaiotza iragarten. Eta Artur Masek 2017an Danimarka mediterranea sortuko ebala iragarri ebanean erabilten eban indar beragaz egiten eban. Herrialde bat, esan eban, ekonomia egonkorra daukana. Bizkaia torrea, Rementeria jauna, zure Danimarka mediterranea bihurtu da.

Bizkaitar gisa bersortu behar ginduzan egitasmo handi hori, EAJren esku tinkotik jakina, eta gure lurraldeak galdutako loria berreskuratzea lortuko ebana, txiki-txiki egin zan danok ikusi genduan neurriera egindako jantzia ez ebala gura ekintzailtza-zentroetan espezializatutako nazioarteko kudeatzaile batek be. Foru Gobernutik, harrituta agertu zinen, bildurtuta esango neuke nik, eta sinesgarritasun-krisiaren leherketa kontrolatu bat sustatzen be ahalegindu zinen, ohartaraziz, Rementería jaunak esan eban moduan, 'Gustauko jatan lehenengokoan atera izana, ezin izan da, baina prozesua ez da hemen amaitzen, bigarrenen izango da, edo behar diran beste bider', ekinagaitik ez da izango pentsauko zenden.

Zuek insinuatu zenden inor ez baegoan interesauta EAJk Bizkairako daukan proiektu izarrean, horrek ez dala Aldundiak benetako lana egin ez dauelako, ezpada merituagaitik, Aldundiaren merituagaitik oso zorrotza izan zalako. Izan be, iruzur hori justifikatzeko daukazezan argudio bakarra da, eta hitzez hitz aitatu dot, 'Eskatzen dogun elkarlan pribatuak zerbitzu publikoari egokitutako baldintza bete behar dituala'. Kudeatzaileek lankidetzara publiko-pribatuaz ezer ulertuko ez balebe moduan, edo inbertsio publikoko fluxu ekonomikoak inbertitzaile pribatu batentzat erakargarriak izan ez balira bezala, Rementería jaunak berak prentsa-agerraldian ziurtau eban moduan.

Argi dago atxakia baino arrazoi gehiago dagozala esateko oso zorrotzak izan garala, gaur-gaurkoz hori ez dalako argudioa Bizkaian publikoa danaren kudeatzaile handi gisa aurkeztu nahi dauen batentzat. Orroa handiak eta egikera txikiak. Argudio bitxiak hasieratik puntaren puntarengo egitasmozat aurkeztu zenerako, nazioarteko edozein kudeatzailek zalantza barik aurkeztu gurako leukena. Aitatuako adierazpenetan, eta beste guztien memorian, aurreko maiatzean egindako hauteskunde-kanpainako ekitaldiak geratzen dira, esaten zanean EAJ kudeaketa onaren bermea dala eta Ekintzailtza Zentro hori enpresen Lezama izango zala, Athleticen harrobiari erreferentzia eginez. Baina ez edozein Lezama, Lezamen Lezama izango zan. Lezama bat munduko beste Lezama batzukaz konektuta egongo dana. Hori esaten zeuskuen. Eta 'Bilbo barriaren eta Bizkaia barriaren ikono bat' izango zana, zuen argumentuakaz jarraituta. 'Hau EAJ da. Berbea beteta eta proiektuak hobetzeko. Gaur jardun biharkoan gogoan hartuta, pausu laburrak eta begirada luzea' esaten eban Ahaldun Nagusi jaunak, bere gobernu eta alderdiko maila goreneko kideak lagun hartuta.

Estiloa ezagun dozu?? Epika gustetan jaku e? Baina hemerotea gogorra da, Ahaldun Nagusi jauna. Gobernu honek arazo gaxa dauka konpontzeko: errealidadea. Eta errealidadearen arazoa da oso buru gogorra dala. Zuek aspalditik dakizue ekintzailtza sarea Euskadin, eta Bizkaian bereziki, ez dagoala bere unerik onenean. GEM ekintzailtza-monitore globalaren ikerketak barriro aitatu barik itxiko ditut, horreek be indargabetu egiten dituzue eta. Era berean, galdetu beharrik be ez dago zuek ekintzailtza agindutako lurra dala aurkezten dozen horretan zergaitik ez dan ekintzailtza loratzen.

Ukazina da Euskadin ekintzailtza-parametro ia guztiak Estatuko batez bestekoaren azpitik dagozala. Horregaitik, gai estrategikoa da ekintzailtza hori gure lurraldean garatuko daben ekintzak bultzatzea. Horretan bai egon gaitekez ados, analisiagaz bat egiten dogu, baina ez planteatzen dozen urtenbideagaz. Izan be, Bizkaia Torrearen fiaskoak arrazoia emon deusku.

2018. urtearen hasieran, Bizkaiko Foru Aldundiak aukera ezbardinak eukazan foru-egoitzak bateratzeko, eta azkenean ebatzi eban foru-jardura behar bezala kudeatzeko onena zerbitzu guztiak bateratzea zala, hori esaten zenden zuek, zerbitzu ahalik eta gehienak eraikin berean. Aldi berean, komunikabideen bidez jakin genduan banketxe batek Bilbon eukan eraikinik enblematikoa funts inbertitzaile bati saltzekotan ebilela. Operazioa, formalki behintzat, irailean itxi zan. Jabe barriari ez jakon maizter finko barririk falta izan. Ehungintza multinazional batez gain, Bizkaiko Foru Aldundiak gainontzeko pisuak alokatzeko zan torrean foru zerbitzuak zentralizatzeke, eta horri Bizkaia Torre deitzen hasi zan ordutik.

Alderdi Popularraren galdera bati erantzunez hilabete hareetan, zuek esan zenduen eraikin horren alokairua urtean 1,6 milioi eurokoa zala. Eta Foru Aldundiaren egoitzak birkokatze eta lekuz aldatzeko proiektua egin bitartean, Ahaldu Nagusiaren iragarpena heldu zan, politika orokorreko Osoko Bilkuran egin zan iragarpena, hemen, Gernikan, eta jada hauteskunde aurreko klabeen. Orduan azaldu ebenez, banketxea eraikinetik ateratzeak garai baten amaiera ekarri eban, horregaz amatau zan Bilboren pisua finantza arloan. 'Orain, zuk esan zenduan, Aldundiak Torrea izetu, eta ideia eta negozio barriak argizatzen dituan garai barri bat piztuko dau'.

Foru zerbitzuakaz batera, zortzi solairutan, eraikina Ekintzaitzako Nazinoarteko Zentro bat eukiteko zan, Foru Aldundiak kudeatutako proiektua eta Aldundiak eta Bilboko Udalak bakotzak % 50ean finantzatutakoa hurrenez hurren. Diputatu Nagusi jaunaren arabera, planta horreek Torrearen bihotza izango ziran, eta euron helburua zan jarduera dinamizatzea, pisu ekonomikoa berreskuratzea eta profil barrizalea indartzea, eta Bilbok eta Bizkaiak izaera ekintzalea izatea. Mundu guztiari esan zeuntsien: 'Torre hori Bizkairako etorkizun hobea argiztatuko dauen itsasargi bihurtzea espero dogu'. Baina Torrea ez da izetu.

Baina jarraitu daigun hemerrotekagaz. Orain dala urtebete, aurkezpen ekitaldi handi bat egin zan Madrilen, eta Rementeria jaunak kanpainako eslogan handia iragarri eban: torrea ekintzaitzaren Guggenheim izango da, iragarri eban.

Gobernuko jaun-andreok, inoiz ez da aztertu hain funtsezkoa ote dan ekintzaitza lokala bultzatzeko ekintzaitza-zentro bat hain eraikin berezian kokatzea. Eta bide batez, hain garesti. Beste batzarkide talde bati erantzutean, kasu honetan Podemos, zuek aitortu zenduen alokairuaren faktura 2,7 milioi eurora igoten ebala BEZik gabe, 3,4ra BEZagaz, bulegoen urteko alokairuagaitik eta 20 urterako. Pasetan dan egun bakotxean frogatuz doa zuek Bizkaia torrea teilatutik eregiten hasi zinela.

Laburbilduz. Bizkaiko Aldundiak denpora asko emon dau proiektu hau prestatzen, bai eta etorkizuneko Bizkaia Torrea kudeatzeko ekintzaitzan espezializatutako nazinoarteko operadore bat kontratatzen be. Alde handiz zuen proiektu izarra izan da, eta horrexegaitik, Rementeria jauna, zuen porrot handiena be bai. Lehiaketa horrek eskaintzak aurkezteko epea birritan luzatu dau, baina hutsik geratu da. Beharbada zuetako norbaitek, Jaurlaritzako jaun-andreok, uneren baten pentsatuko eban proiektu hau urteko txoltoa zala, aurreikuspenetan etorkizuneko kudeatzailearentzat errentagarritasun interesgarriak aurreikusten ziran eta. Baina badirudi lizitazaleek ez ebezala partekatu kudeatzaile onen estimazioak, eta torrearri paso egitea erabagi eban. Izan be, hori da autobomboaren arazo nagusia. Proiektua Bizkaiak espero eban aukerarik handiena balitz bezalabat saltzen da, eta azkenean hutsik geratzen danez, ez da operadorearik aurkezten lizitazinora. Zaplasteko ederra eta errealismo dosi itzela.

Rementeria jauna, enpresa edo proiektu bat eratzeke, ez da logikoa egoitza fisiko bat aukeratzea, aurretik proiektu hori garatzeko oinarriak ezarri barik. Zu Mundakakoa zarenez, metafora onartuko deustazu, beste modu batera esango deustut. Baldintzak onak ez badira eta ezkerreko olatu zoragarri hori altxatzen ez bada, ezertarako ez deustu balioko munduko taularik garestienagaz uretara sartzeak.

Amaitzen noa. Urtarrilaren 22tik Gaur betetzen dira 5 aste lehiaketa formalki hutsik geratu zanetik. Egoera hori ikusita, Bizkaiko Aldundiak erabaki eban berehala aktibatuko ebala lizitazio-prozedura negoziatua, nazinoarteko kudeatzaile bat kontratatzeke Bizkaia torrerrako proiektatzen dan Ekintzaitzaren Nazinoarteko Zentrorako. Hau da, interesa dauken operadoreakaz zuzenean tratatuko dauela, haren eskaintza zuen eskaeretara egokitzeko. Zer esan nahi dau horrek? Hori azaldu beharko deuskuzu gaur; izan be, kontratuaren baldintzak nabarmen aldatuko dira ezta? Bai kopuru ekonomikoei jagokenez, handitu egin daitezke eta, bai kontratuaren iraupenari jagokenez, murriztu egin daiteke eta, kontzesinoaren arriskua ahalik eta

gehien murrizteko. Azkenean zuk, Rementeria jauna, etorkizuneko kudeatzaile hipotetiko baten neurrira egindako traje bat egitera behartuago ikusten dozula zeure burua. Ez ekintzaitzak Bizkaian funtzionau dagian, baizik eta zure proiektu izarra errealidade izan daiten. Begira zelan aldatu dan filma. Zuk esaten zenduan moduan, lehenengokoan ez bada bigarrean, eta ezpabere hirugarrean, gogoagaitik ez da izango behintzat.

Bide luzea dago ondino Bizkaian ekintzaitza bultzatzeko. Horregaitik ekin egingo dot: ze neurri estruktural garatzeko asmoa dauka zure Gobernuak. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. En el turno de respuesta, la representante de la Diputación, señora Basurko Urkiri, tiene la palabra.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos y a todas.

Fernández andrea, joan dan otsailaren 10ean, Batzar Nagusi honeetako Ekonomia Sustatzeko Batzordean agerraldia egin neban, EH Bildu eta Talde Misto PP batzarkide taldeek eskatuta, eta baita be guk geuk eskatuta, Bizkaiko Nazinoarteko Ekintzaitza Gunearen zuzendaritza eta kudeaketa zerbitzua emoteari buruzko guztiaren barri emoteko.

Agerraldi horretan zehatz-mehatz azaldu neban, eta zure galderei erantzun neutsen, amaitutako kontratazino-prozesuari buruz eta Aldundiak jada abian jarri dituan neurri barriei buruz, Bizkaiko Torrean Nazioarteko Ekintzaitza Zentro bat martxan jartzeko prozesuagaz jarraitzeko aurreikusita dagozanei buruz.

Azalpen horreetara joko dot; izan be, luzeak eta zehatzak izanik, ezin dot gaur hemen errepikatu dana, baina nik azaldutako gai nagusiak gogoratu nahi ditut:

Hasteko, ekintzaitza aurreratua sustatzeko ekosistema indartzeko garrantzi estrategikoa gogoratu neban. Egiaztapen horrek eta lurraldeko negozio barrizaitleen kopurua handitzearen aldeko apustuak, bai eta lurraldeko ETEen eta enpresa erreferenteen barrikuntzan laguntzearen aldeko apustuak be, Aldundia Biscay Startup Bay estrategia definitzera eroan eban. Estrategia hori, azaldu dodan moduan, 4 zutaberen inguruan egituratzen da:

1. Bizkaian ekintzaitza aurreratua sustatzeko ekosistema indartzeko ekintzak garatzea.

2. Nazinoarteko nodoakaz konexinoa ezartzea.

3. Startup-ak erakarteko ekintzak areagotzea.

4. Nazinoarteko Ekintzaitza Zentro bat abian jartzea, Bilbo-Bizkaia munduan bikaintasun-sare bat osatzen dabilzan lurraldeakaz bat egin dagian, ekintzaitza aurreratuaren esparruan.

Bigarren, zehatz-mehatz azaldu neban Ekintzaitzaren Nazinoarteko Zentroa abian jartzeko garatutako lan-plana, barruan hartzen ebana nazinoarteko operadore bat kontratatu ahal izateko lizitazino ireki bat abiaraztea. Era berean, eta danok dakigunez, azaldu neban mugarri hori, prozesuaren barruan, itxi egin zala proposamen formalik izan gabe, nahiz eta egiaztatu ahal izan zan nazinoarteko hainbat operadorearen interesa proiektuagaz.

Hirugarren, azpimarratu neban, Ekintzaitzako Nazinoarteko Zentro bat abian jartzeko Bizkaian lan egiteko interesa dauken nazinoarteko eragileak dagozala egiaztatzeak berretsi egin ebala gure helburua eta nazinoarteko operadore bat bide barrien bidez kontratatzeo prozesuagaz jarraitzea.

Laugarren, azaldu neban gure helburua lortzeko irekitzen jakuzan aukera desbardinak aztertu genduzala, eta, kontratu publikoen legeari men eginez, 4 bide zabaltzen jakuzla: lizitazio ireki barri bat, publikidadedun prozedura negoziatu bat, publikidadetik bako prozedura negoziatu bat eta alkarrizketa lehiakorra. Eta bertan azaldu neban publikidadedun prozedura negoziatua dala egoerara eta helburuetara ondoen egokitzen dana. Aurreko lizitazioaren emaitzak behar bezala justifikatzen dau proposatutako kontratuaren konplexutasun juridikoa eta finantzarioa, eta, beraz, agindan aitatzen dan negoziatuen beharra. Kontratu motari jagokonez, pentsatzen jarraitzen dogu zerbitzuak emoteko kontratua dala nazinoarteko operadoreagaz egin gura dan lankidetzaren espirituari ondoen erantzuten deusana. Lankidetzaren horretan, kudeatzaileak bere gain hartzen dau zentroaren kudeaketa eta, beraz, negozioari lotutako arriskua.

Amaitzeko, bisitei eta kontaktuei buruzko informazioa emon neban, eta asteotan egiten dabilz, Bizkaiko Ekintzaitza Zentroan interesa dauken nazinoarteko operadore posibleak, abian jarriko dogun prozesu barriari buruzko informazioa emoteko eta euren feedbacka jasoteko. Kontaktu horreek amaitutakoan, proposatutako kontratuaren bideragarritasun-plana barrikusi eta, hala bajagoko, eguneratu egingo dogu, eta publikidadedun prozedura negoziatu baten bidez lizitatuko dogu. Eskerririk asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, en el turno de respuesta, tiene la palabra la señora Fernández Angulo.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Mahaiburu andrea, eskerririk asko. Rementeria jaunak pentsatuko dau zeozer esango dodala, ze nik zeuri egin deusut interpelazioa. Zuk zeure Gobernuo kide batengan itxi dozu, eta hori egin daiteke, jakina, baina onena izango zan zuk erantzutea, alde handiz, Ganbera honetako kide guztion artean, proiektu horri buruz gehien berba egin dauena zeu zaralako eta, gainera, zeure proiektu izarra zalako. Baina, azken baten, zuk jakingo dozu zergaitik ez dozun gaur tribuna honetara urten gura izan proiektu horren porrota aitortzera, hauteskunde-kanpainan erabilitakoa izanda, eta, noizbait esan deusudan moduan, zuk, zure alderdiak, kanpaina horretan erabili eta gehiegikeriaz erabili zenduen proiektu hori, bizkaitarrei milioi asko eta asko kostatuko jakun proiektu hori.

Egia da, Basurko andrea, zuk agerraldia egin zenduala Batzordean taldeek eskatuta, eta, ondoren, zeuk eskatuta be egin zenduala. Politikak azaldu zenduzan, zuk, zure Sailak, zure aurreko pertsonak egin dituzuen politikak. Baina jakina, nik galdetzen deusut: zuek egiten dozue inoiz autokritikarik? Ebaluatzen dituzue politika publikoak? Izan be, emaitza batzuk oso agirian jartzea oso garrantzitsua iruditzen jat erantzuteko txanda honetan.

Azken GEMaren arabera, 2018/2019an egindakoan, hasierako fasean (sortubarri eta sortzen) dagozan enpresadun ekintzaileen tasa, TEA izenaz ezagunagoa dana, jaitsi egin da Euskadin 2017/2018 aldiagaz alderatuta, eta 5,8tik 5,1era igaro gara. Preminaren TEA igon eta aukeraren TEA jaitsi egin da. Adierazle horrek berak, TEA, dino industriaren eta energiaren sektorean be 8,7tik 3,1era igaro dala. Horreek zuk azaldutako politiken emaitzak dira; horregaitik, nik gaur itaun honetan galdetzen neutsan Gobernuari eta Ahaladun Nagusiarri ze politika barri egitea pentsetan zenduen egoera horri buelta emoteko, eta ekintzaitza benetan

gure lurraldean bultzada hartu eta aineratu ahal izateko, nire ustez helburu komuna eta partekatua izan daitekeelako.

Agerraldi hartan egin zenituen baieztapenetako batzuk guzurtatu gura dodaz, ze zuk barrikuntzaren arloko aurrerapenei buruz berba egin zenduan, baina datuetara goazenean, eta nik espero dot Osoko Bilkura honetan egindako interbentzio batean egin zan moduan horrelako azterlanak zalantzan ez jartzea barriro, ze uste dot gainera, jende askok aitortutako prestigioa eta garrantzia daukela; produktuetan erabat barritzaileak diran ekimenen edo Zerbitzuen TEA murriztu egin da. 2017/2018 ikasturtean % 21,7 zana 2018/2019 ikasturtean % 21,7 da. Eta merkatuan urtebetetik beherako teknologiak erabilten dabezana ekimeneana, barriz, 13,9tik 7,6ra igaro da. Hau da, politika horreek ez dabe balio Euskadin eta Bizkaian geunkazan ekintzailtza-mailei eta ratioei eusteko be. Aizu, kontua da zuek 40 urte daroazuezala hemen gobernatzen, autokritikaren bat, urratsa aldatu, gauza desbardinak egin. Nik esku hartu dot 6 hilabete baino gehiagootan Batzar Nagusien Osoko Bilkura honetan erreforma zabalagoak eta sakonagoak aldarrikatuz, ze bestela honek txarrera egiten jarraitu baino ez dau egingo.

Bizkaia Torreak ekarri dau zuek idiak baino lehenago jarri dozuela gurdia, baina hori ezeze, Bizkaia hipotekatu be egin dozue idion etorrera aurrekusi be egin barik. Bizkaiaaren lehentasunezko beharra, eta halan uste dogu guk, ekintzaileak dira, eta zentro espezializatu bat egoteak ez ditu berez sortuko, alde z aurretik ekosistema indartsu bat ez badago, hori bultzatuko dauen ingurune bat eta espiritu ekintzaile hori garatuko dauena. Emon deusudazan datuak objektiboak dira, eztabaida ezinak, eutsi ezinik ezeze, atzera egiten goaz. Holan ezinezkoa da Nazinoarteko Ekintzailtza Zentroaren proiektuak arrakasta eukitea. Ekintzailtza, datu horreek eta aurkeztu geinkezan beste askok erakusten dabenez, kirol minoritarioa da Bizkaian, apenas dagoan harrobirik. Zuek aitatzen deuskuzuen ekintzailtza Lezama hori porrota da, zuen gobernutik ez diralako ekintzailtza garatzeko politika egokiak gauzatu.

Benetan dinotsut, guk halan uste dogulako. Beharrezkoa da ekosistema bat eraikitzea behetik gora, ekintzaileetatik erakundeetara, eta ez alderantziz. Ez deusuet ukatzen zuek helburu bat daukazuela, Bizkaian startup ekosistema hori bultzatzea. Ziur nago esaten deuskuzuela, eta egia dala. Baina errealidadea da zuen politikek ez dabezala behar leukiezan emaitzak, eta hori da, hain zuzen be, gaur neurri estrukturaleri buruz galdetzeko arrazoi nagusia, eta barriro be galdetuko deusut, Diputatu Nagusia, Gobernu honek ze neurri bultzatuko ditu Bizkaiko Ekintzailtza Nazioarteko Zentroa abian jartzeko orduan beste porrot bat gertatu ez daiten eta etorkizunean garatu ahal izan daiten. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. En el turno de respuesta, por parte de la Diputación, tiene la palabra la señora Basurko Urkiri.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Muchas gracias, señora presidenta.

Fernández andrea, autokritika osoa eta etenbakoa. Une oro planteatzen dogu jarduera-ildo desberdinak definitzean, ze emaitza lortzen gabizan eta markatu eta jarraitu gura dogun norabidea. Izan be, nire interbentzioaren hasieran, eta aurreko agerraldian be hasi nintzan esanez Nazinoarteko Ekintzailtza Zentroa hausnarketa estrategiko baten oinarritzen dala, ildo ezbardinak zehaztuta eta helburu argi bigaz:

1. Lurraldean enpresa barritzaile barrien eta negozio barritzaile barrien kopurua handitzea.

2. Lehendik dagozan enpresetan barrikuntzan, dibertsifikazioan, negozio barrien definizioan, negozio-eredu barrietan laguntzea.

Danok gurako geunke GEMeko datuak hobeak izatea. Ñabardurak ere egin behar dira, ze GEMean dana sartzen da, dana, proiektuen tipologia guztia, eta zenbatzeko orduan... Baina emaitzak hobeak izateko gurarian bat nator zugaz, baina uste dot ekintzailtza aurreratuz gabizela berbaz, eta emaitzak ez dira guztiz aplikatzekoak, edo modu berean irakurtzekoak. Baina hori aparte utzita, estrategia bat dago. Aurreko legegintzaldian, aurreko legegintzaldiaren hasieran, zuk ondo esaten dozun moduan ekintzailtza 30 urtean Aldundi honen bihotza, zati garrantzitsu bat izan eta ostean, batek esan eban: zelan egin geinke aurrera? Zelan lortu geinke negozio gehiago eta hobeak izatea? Eta lau ildo zehaztu ziran. Bata, zuk esan dozun lehenengoagaz guztiz parean: indartu daigun Bizkaiko tokiko ekosistema, indartu daiguzan ekintzaileei, enpresa intraekintzaileei emoten deutsegun babesa, hori be gaudituz beharrekoa zan eta. Indartu daiguzan laguntzak, zerbitzuak, zerbitzu pilo bat garatu ziran, espazioak eta abar.

Bigarrena. Horregaz lortuko dogu hobetutea behar bada. Baina benetan pentsatzen badogu enpresa-proiektu gehiagori laguntza emoteko gai garala, erakarri daiguzan kanpotik be, eta lagundu daigun gure enpresen dibertsifikazioan. Hortik nodoak, nodoakaz lotzea eta enpresak erakarteko gure politika aktiboa, horretarako bideratutako lan talde bategaz.

Eta hirugarren, zentroa. Baita ikusgarri egoteko eta erakarpen prozesu horreek arintzeko bide gisa sare baten parte izatea be. Beraz, autokritika bai, eta estrategia be bai. Eta autokritika etenbakoa. Barrikusten eta hobetzen jarraituko dogu, benetan kezkatzen gaituelako lortzen ditugun adierazleak. Besterik ez. Eskerririk asko

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted. Segundo punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Interpelación  
([R.E.11/E/2020/0000350](#))

**Autor:** Cabornero Alor, Eva María (EB)

**Asunto:** Las medidas a poner en marcha en el transporte público, para garantizar la accesibilidad universal e igualdad de oportunidades para todas las personas.

**Documento Principal:**  
([R.E.11/E/2020/0000350](#))

**Expediente:** ([11/B/18/0000840](#))

2.- Hurrengo idatziari buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan eretxi ezker, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itauna  
([11/E/2020/0000350SE](#))

**Egilea:** Cabornero Alor, Eva María (EB)

**Gaia:** Irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztientzako aukera-bardintasuna bermatze aldera garraio publikoan abian jarri beharreko neurriak.

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2020/0000350SE](#))

**Espediente:** ([11/B/18/0000840](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera proponente de la iniciativa. Por tanto, señora Cabornero Alor, tiene la palabra. Y en este punto, quiero dar la bienvenida a los representantes de Aukera Berri, a las personas que se encuentran en la tribuna de invitados. Dicho esto, tiene la palabra.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Muchas gracias señora presidenta. Buenos días a todos y a todas.

Gaur planteatu nahi dogu garraio publikoan inklusino sistemak eguneratzea. Gai hori beste batzuetan be jorratu izan da hemen, baina garrantzitsua iruditzen jaku berreskuratzea, aurrera egiten jarraitu ahal izateko eta, holan, persona guztiengatik garraio publiko inklusiboa bermatzeko. Aurreko legegintzaldian batzordeetan hainbatetan jorratutako gai bat da, baina horrek ez dau esan gura urtenbide posible guztiak gauzatu diranik, eta ez dau esan gura gaur hemen gagozan persona guztiak kolektibo horren egoeraren eta beharren jakitun garanik. Hori dala ta, ikusmen-urritasunen bat dauken garraio publikoko erabiltzaileakaz eta gaur egun gugaz batera dagozan Aukera Berria plataformako kide eta ordezkariakaz alkartu eta gero, lehendakariak esan dauen moduan, uste izan dogu beharrezkoa zala gai hori barriro jorratzea eta termino barriak planteatzea, persona guztiak garraio publikoan modu eraginkorrean integratzeko urtenbiderik onenak bilatzen jarraitzeko.

Arartekoak Euskal Autonomia Erkidegoko garraio publikoaren sistemaren irisgarritasun-diagnostikoan eskaintzen deuskuzan datuen arabera, Bizkaian biztanleen % 22,73k mugikortasunagaz lotutako desgaitasunen bat dauka. Hau da, 262.000 persona dagoz, adinagatik edo desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialakaitik, modu autonomoan mobiduteko gaitasuna murriztuta.

Ikusmen-aniztasun sentsoriala dauken pertsonen hainbat eragozpen izaten dabez, ingurune fisikoaren baldintza soziokulturalak. Eragozpenok mugatzaileak dira euren garapenean, eta, gehienetan, oztopatu egiten dabe haien aurrerapena eta errealizazioa personala. Kolektibo horren eta beste batzuen inklusioa hobetzeko, erakundeek ekimenak eta ekintzak garatu dabez personeren beharrei neurri handiagoan edo txikiagoan erantzuteko, kasu honetan ikusmen-aniztasun sentsoriala dauken pertsonenak.

Hala ta guzti be, praktikan, eta kolektibo horren eretxirako, neurriok jarri dira baina partzialki eta modu ez oso eraginkorrean edo osatu barik. Ulertu behar dogu ikusmen-arazoren bat, ikusmen txikia edo, oro har, desgaitasunen bat dauken personentzat xehetasunik txikiena erabakigarria dala euren autonomiarako. Beste persona batzuentzat edo guretzat garrantzi handirik ez dauken alderdi txikiak eurei muga handia eragin leie, euren autonomia mugatuz eta euren eskubideak urratuz. Eta euren estimazioari kalte egin leie.

Inoiz pentsau izan dogu: zelan mobiduten da ikusmen urria edo ikusmen-urritasun sentsoriala daukan persona bat gure garraio publikoko sisteman? Ba Barik txartel bat kargatzea bezain erraza eta egunerokoa dan ekintza, danok uneren baten edo egunero egiten doguna, badakigu zelan egiten dan, erraza da, makina saltzaile batera zoaz, zure txartela jarri, ordaindu, jaso eta kito. Baina imajinatzen dozue holako eragiketa bat begiak itxita egiten?

Tornutik pasatzen goaz, eta honek txistu batez adierazten deusku ez daukagula saldorik, eta, beraz, ez deusku ixten nasetara sartzen. Jakina, une horretara arte ezin dogu jakin, ezeztatzeko makinaren informazio bakarra bisuala dalako. Mugikorrek aplikazio espezifiko baten bidez bakarrik jakingo dogu gure Barik sistemaren saldoa. Baina aukera horrek baditu eragozpen batzuk, eta da smartphone batzuk ez dirala bateragarriak aplikazio horregaz. Eta, era berean, kontuan izan behar dogu persona asko ez dirala bateragarriak teknologiaz.

Gure txartela kargatzeko, tornutik pasatu ezin dogun une honetan, egoera bardinagaz egiten dogu topo. Birkargatzen hasten gara, eta ezinezkoa izango litxakigu jarraibideak betetzea, ikusteko moduan bakarrik emoten jakuzalako saltzeko makinetan. Gitxienez bat eta bi lineetako saltzeko makinetan, hirua audio sistema bat dauka. Behin tramite hori igarota, tornuak pasatu ditugu, beste erabiltzaile baten laguntzaz Barik txartela kargatzea lortu dogu, eta beste erabiltzaile horrek eskua sartu eta gure Barik kargatu ahal izan deusku.

Behin hori igarota, zein da hartu beharreko hurrengo erabagia? Nasa aukeratu. Zelan aukeratuko dogu nasa, nasa baktxaren helbidea adierazten deuskuen ikusteko kartelak ezin baditugu ikusi? Nora goaz ezker-eskuin? Beti euki geinke beste persona baten borondate ona, ze norabide hartu behar dogun adieraziko deuskuna.

Heldu gara aukeratutako nasara, eta zer da aurkitzen doguna. Zenbat falta dan nire metroa etorteko. Ez dakit, argiaren adierazlea ezin dodanez ikusi, personaren bateri galdetu beharko deusat noiz pasatuko dan nire metroa eta zein norabidetan. Izan be, modu bisual eta argitsuan bakarrik ikusi geinke metroaren norabidea, Sopelara doan, Cabiecesera doan, Basaurira doan. Beste behin be, erabiltzaileen borondate onaren eta pazientziaren menpe gagoz.

Hemen ez da amaitzen dana, behin bidaia egiten noala, zelan dakit non jaitsi behar dodan? Metroak, Renfek ez bezala, ez dauka geltokiak iragarriko dituen audio-sistematik. Beraz, askotan geltokiak zenbatzen joateko trikimailua erabilten dabe, noiz jaitsi behar daben jakiteko. Baina hori ez da beti eraginkorra; izan be, ezagutzen ez badabe, ez dalako ohikoa izaten geldialdi hori, euren helmuga, ez dakie zenbat geldialdi dagozan, norbaiti galdetu behar deutse barriro, jakiteko non dagozan, zer geldialdi dan eta abisatzen deutse.

Ez dogu amaitu ondino. Gure helmugara helduta, zer norabide hartu behar dogu? Zein urteera hartu behar dogu? Barriro be, kartelak bakarrik ikusiko ditugu, informazioa modu bisualean bakarrik emoten da.

Hemen be ez dugu amaitu, geltoki asko, behin eskailerak aurkitu ditugunean barriro bitan zatitzen diralako. Barriro be erabiltzaileen bati galdetu behar deusagu.

Baina gauza bera gertatzen jaku beste garraibide batzuetan, Bizkaibusen adibidez. Geltokira heldu gara, ez dago Braille sistematik ordutegiak, ibilbideak, autobusaren norabideak irakurri ahal izateko. Autobusak be ez dau kalidadeko audio-sistematik, abisatzeko. Zelan jakin geinke ibilbideari, ordutegiei eta abarri buruzko informazioa? Ba barriro galdezka. Ez dago jakiterik, galdetuta baino. Geralekuan norbait egoteko zortea badogu, askotan geltokietan ez dagoalako personarik, orduan imajinau egin behar izaten dogu.

Nahi genduan autobusera joan ginan, baina ez dakigu barriro zein geltoki erabili behar dogun. Barriro be, geldialdiak eskuakaz, eskuko atzamarrakaz kontatuz joateko trikimailua erabilten dogu. Baina autobusa ez da geltoki finakoak dituen metroa bezalakoa, autobusa gelditu egin daiteke trafiko arazoakaitik, auto bat txarto aparkauta dagoalako, edo semaforo bategaitik. Hor galtzen dogu geldialdien kontua. Orduan, ez dakigu noiz dan gure helmuga. Barriro galdetu behar dogu.

Horregaz guztiagaz pentsau geinke beharrezkoa dan informazioa kanal desbardinatetik, ikusmenetik, ukimenetik edo entzumenetik lortzearen alde pribilegiotzat hartu daitekela? Edo eskubidetzat jo geinke. Alejandro Jodorowskyk badauka esaldi ospetsu bat, harira datorrena: itsuak bezala ikusteko, alkar ikusteko eta ulertzeko itsu bihurtu behar dala ulertzea.

2017an, akordio bat lortu zan, eta arauz besteko proposamen baten onartu zan. Proposamen horrek eskatzen eban jarraitzeko konponbidean eta tresna barriak bilatzean, garraio publikoaren irisgarritasunaren arloan ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzeko helburuan aurrera egiteko. Garai haretan Gómez Díaz jaunak ez eukann diputadu kargua, baina bere Sailak aldizkako bilerak egiten jarraitu dau, bai ONCEgaz bai beste alkarrekin batzukaz. Urte horreek igarota, eta teknologiak aurrera egiten dauen abiaduragaz, Elkarrekin Bizkaian uste dogu aurrera egin behar dogula eta sistema barriak eta urtenbide barriak txertatzen jarraitu behar dogula, gizarte justuagoa, guztiontzako solidarioagoa eregiteko. Besterik ez. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. En el turno de réplica, en nombre de la Diputación, tiene la palabra el señor Gómez Viar.

El Sr. **GÓMEZ VIAR** jaunak: Buenos días a todos y todas. Mahaiburu andrea, batzarkideak. Lehen be esan daben moduan, ongietorria emon gaur gugaz dagozan Aukera Barriak alkarteko kideei. Harreman estua daukate eurakaz, batez be Iñakigaz.

Nik Cabornero andreari eskerrak emonaz hasi gura dot interpelazino hau aurkeztearren, alkarregaz aztertu ahal izateko hartu beharreko neurri edo hobekuntza posibleak eta irisgarritasun unibertuala bermatzeko. Kasu honetan, Bizkaibus zerbitzuari jagokonez, horixe dalako guk zuzenean eragin geinken garraioa. Eskerrak emon gura deutsudaz; izan be, nire ustez, interpelazino honek danok ezagutzen ditugun zailtasunetakoren bat hobetzea bilatzen dauela uste dot.

Aipatzekoa da, era berean, metroari buruz esandakoa, ez dituala geltokiak kantatzen, nik baietz uste dot, metroa fonia-sistemagaz geltokiak esaten joaten dala. Dinodan moduan, eskerrak emon, bereziki, ikusmen-aniztasuna edo ikusmen-urritasuna dauken personen oztopoak ezabatzen aurrera egiteko.

Irisgarritasunak aukera emoten deutse herritarrei gizarte- eta ekonomia-jardueretan parte hartzeko, ingurunea eregiteko sorrerako helburuak betez, Irisgarritasunari buruzko Liburu Berdean jasoten dan moduan. Ezaugarri horreek guztiek ahalbidetzen dabe edozein ingurune, zerbitzu, kudeaketa-sistema edo mantentze-lan diseinatzea, gauzatzea edo ahalik eta persona gehientzat egokia izatea, erosotasun-, segurtasun- eta bardintasun-baldintzetan. Eta, bereziki, hori holan izan behar da desgaitasunen bat dauken personentzat.

Irisgarritasuna oinarritzko hiru jarduera motari lotuta ulertu daiteke: mugikortasuna, komunikazioa eta ulermena. Hesien ondorioz mugak euki leikiezanak hirurak. Mugikortasunari jagokonez, garraio bat irisgarria izango da personek beren beharrak eta joan-etorrietarako gurariak modu autonomoan ase ahal dabezanean. Hori lortzeko, beharrezkoa izango da geltokiek edo geralekuek lekualdatzea ahalbidetzen daben ezaugarri egokiak izatea, ez bakarrik gurgil-aulkien erabiltzaileentzat, baita ezgaitu guztientzat be, bai fisikoentzat, bai zentzumenezkoentzat. Gainera, ibilgailuek persona guztiek komunikatzeko, ulertzeko eta garraio irisgarria lortzeko beharrezko diran diseinu-baldintzak eta soluzio teknikoak izan beharko dabez.

Uste dot hemen gagozan guztiok bat egiten dogula, garraioak bete behar dituela zerbitzuen eraginkortasunagaz zerikusia dauken irizpideak, funtzionamentuari jagokonez: bidaia-denborak, maiztasunak eta abar. Baina horrez gainera, gizartean be eraginkorra izan behar dau, eta lanpostuan edo ikastetxean dagozan ekipamentuak eta zerbitzuak bardintasunez eskuratzeko aukera emon behar dau. Garraio publiko irisgarriak lortu beharko leuke desgaitasuna dauken personek garraio-katea osatzea, maila galdurik egon barik. Inguruneak eta ibilgailuak desgaitasuna dauken personek erabili ahal izateko mekanismoak eta sistemak izan behar dabez.

Helburu horretan ziur nago danok bat gatozela, eta egon ziur oso kontuan hartzen daukagula Garraio eta Mugikortasun Iraunkorreko Sailak Bizkaibusen zerbitzua emoteko hartu beharreko neurri eta jarderetan. Persona guztien mugikortasuna bermatzea da Bizkaibusen helburua, esaten deutsuedan moduan, eta, horregaitik, arlo horretan aurrerapen teknikoak egiten diren neurrian, horreek egokitzen joaten gara autobusak apurka-apurka barritzeko aukera emoten dauen erritmora. Flotan autobus irisgarriak izatea funtsezkoa da persona guztiei kalidadezko zerbitzua emoteko, edozein dala euren egoera. Hori dala-ta, esan behar deutsuegu Bizkaibuseko autobusen % 100 irisgarriak dirala eta azken teknologiakaz horniduta dagozala, ikusmen- eta entzumen-arazoak daukezan personei bidaia errazteko. Horrek

ez dau esan gura aurrera egin eta hobetu behar ez danik. Autobus guztiek, edozein neurritakoak dirala, beheko solairu bat dauke autobusera sartu eta jaisteko, arazorik barik. Eskoiko alboko belaunikatzea deritzona da, ibilgailua geldituta eta ateak itxita baino ez dabilena, eta automatikoki abiarazten dana zabaltzeko eskatzen danean.

Gainera, flota osoak arrapalak ditu gurpil-aulkian dagozan pertsonak autobusak modu autonomoan erabili ahal izan dagiezan. Autobus batzuek honezkero arrapala bikotxa daukie, hori ezarrita dago, eta horrek irisgarritasuna hobetzen dau; izan be, arrapala elektrikoaz gain, eskuz dabilen beste bat dago gehigarri, eta sistema horregaz bermatzen da gurpil-aulkian dagozan pertsonak, kasu honetan gailu automatikoren batek funtzionatzen ez badau, bestea eskura izatea. Autobusek lehentasunezko 4 eserleku dituzte PMRrentzat, mugikortasun urriko pertsonentzat, sarrerako ateetatik hur, behar dan moduan identifikauta kaskillo horizontal baten bidez, bajatzeko beso-euskarri bategaz, behar bezala seinaleztatuta eta geralekuko txirrin eta seinaleetara iristeko moduan, urdin kolorez tapizatuta, agora modeloan, gainerako eserlekuetatik ezberdinak. Sartzeko ateeak soinu-mekanismoa dauke, ez nabarmena, komunikaziorako arazoak daukezan pertsonak jakin dagien non dagoan zehatz.

Ikusteko informazio-sistemei jagokenez, hemen zuzenago aztertzen gabilzanak, autobusek TFT pantailak ddaukez, eta pantaila horreek autobusaren ibilbideari, hurrengo geralekuei, beste linea batzuekiko korrespondentziari eta autobusak geralekura heltzeko denborei buruzko informazioa eskaintzen dabe denbora errealean. Informazio horri esker, orientazio hobea emoten jake entzuteko arazoak eta arazo kognitiboak daukezan erabiltzaileei, bai eta gainerako pertsonari be, bidaiaren eta trasbordoaren plangintza errazteaz gainera.

Bizkaibusek informazio-sistema bi ditu audioagaz, itsuen edo ikusmen urriko pertsonen mugikortasuna errazten dabenak. Gaur egun, bi sistema horreek bi modutan eskaintzen dabe informazioa: autobusaren barruan, hurrengo geralekuaren barri emonaz, eta autobusetik kanpo, SIO bidez panel elektronikoetan, geltokietako TIPetan, linearen barri emonaz, heldu arte itxaron beharreko denbora eta autobusen helmuga. Audioa pertsona itsuek dauken mando baten bidez aktibatzen da, eta gailu bera erabilten da soinua aktibatzeko, adibidez, hiriko semaforoetan.

Aurreko legegaldian, SIO itsuen informazio sistemaren ordean SIENA sistema ezarri zan. Ezarritako sistema barri horrek ahotsaren sintonizazio egokiago bat dauka, software baten bidez egiten dana. Horrez ganera denbora errealean jarduteko egin leitekezan aldaketak be aitatu behar dira.

Irisgarritasun unibersalaren alorrean, beste edozeinetan bezala, giza ezagutzak aurrera egitea eta neurriak lantzen eta egokitzen jarraitzea da kontua. Garraio kolektiboko sistemak irisgarritasun unibersala diseinatuzko jarraibideei jarraitu behar deutse, gutako edonori zerbitzu egokia eskainiz eta eskaini ahal izateko, giza aniztasuna kontuan hartuta. Zerbitzutik esan behar dogu, hainbat kolektibok egindako eskaeren aurrean, kasu honetan, gaurko moduan, Aukera Barriak taldeagaz batera, irisgarritasun unibersalari jagokenez, eta horreetako batzuk Bizkaiko garraio publikoaren sistema osoan inplikitzen diranez edo ia guztiak inplikitzen diranez, aplikatu beharreko urtenbideei buruzko diagnostiko bat egiten gabilzala. Nik uste dot inoiz eurei, eta gainerako taldeei, baita Cabornero andreari be, komentau deutesdala.

Gure ustez, sortutako gai batzuk, garraio-sistema osoari eragiten deuteslako, jagokon Bizkaiko Garraio Partzuergoko CTB Batzordean jorratu beharko lirateke. Edozein kasutan, horrek ez dau esan gura gu lanean ez gabilzanik, egon daitekezan aukerak, zailtasunak eta akatsak aztertu eta hobetzen saiatuz. Nik gaur hemen iragarri gura deutesuet, berehala hartu beharreko neurri bat, hau da autobusen barruan mandoaren bidez fonio-eskaera bat ezartzeko proiektua, linea horretako ibilbidea amaitu arteko geldialdi guztiak kantatzen

joateko. Hau da, itsuek dauken mando, denok ikusteko balio dauen mando normala, guk igarri dogu eragozpen emoten dituala, geltoki batera heltzen dan bakotxean sakatzen joan behar dabelako. Cabornero andreak ondo azaldu dau, batzuetan ez dago jenterik geltokietan, salto egiten da... Arazo batzuk ditu, igarri ditugunak; orduan, egingo doguna da hori aldatu, eta mando horregaz beragaz, persona batek linea horren ibilbidea amaitu arte erabilten dauenean, geldialdi guztiak kantatzen joan, urtenbideez arduratuta egon beharrik izan barik. Hala eta guzti be, Sailak jakin behar dau zer pentsatzen daben alkarteek, kasu honetan Aukera Barriak-ek, mandoaren gaiari buruz, eta eurek jakin behar dabe gu be zer egiten gabilzan, berandu baino lehen, aginte-mota hori kentzen ahalegintzeko, eta askoz be errazagoa izan daiten.

Amaitzeko, esan behar dogu, beraz, irisgarritasunaren urtenbideen inguruko lan bat planifikatzeko, inprobisau barik jardun behar dogula, eta, beraz, edozein ekintzak ondo finkatuta egon behar dauela eta egungo egoeraren ezagutzan oinarrituta egon behar dauela. Guk pentsatzen dogu funtsezkoa dala garatzen jarraitzea, iraganean NTBn aldian-aldian gauzatzen ziran irisgarritasun-batzorde teknikoetan egin dan bezala, leku komun bat, garraio-operadore guztiak alkartzeko, neurriak hartzeko orduan ados jartzeko. Saio horreetatik ekintza koordinatuak atera ziran, adibidez, adingabeentzako doako txartelak, mugikortasun murriztua dauken personen laguntzaileak, eta bestelako neurriak.

Gure ustez horixe da bidea, eta TBZ bera ados dago aldizkako batzorde horreei barriro heltzeko, aurrera egiten jarraitzeko, mezu komun bat plazaratuz eta erabiltzaileakaz koordinatuz. Gu ez gara geldirik egongo, eta holako neurriakaz jarraituko dogu, hobetzen, harik eta behin betiko neurri batera heldu arte eta mundu guztia pozik jartzen dauen eta konponbide bat ekarten dauen arte. Garrantzitsuena da hori aztertzea eta neurriak lehenestea. Besterik gabe. Eskerrik asko guztioi.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted. En el turno de respuesta tiene la palabra la señora Cabornero Alor.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Gracias de nuevo. Asko pozten gara. Segurutzik gaurko konbidatuak be, Aukera Berriak alkartekoak be asko poztu dira entzunda aztertzen zabiziela, urtenbide bila zabiziela. Baina ondo esan dozun moduan, ezin gara geldirik egon eta aurrera egiten jarraitu behar dogu, lanean, batez be gainbegiraten. Ezin dogu dana CTBren eskuetan itxi eta haren konfiantzan beste barik; ze, nik ez dakit zuek jakitun zagozien, baina uste dot CTBko edo metroko arduradunak ez dirala barriro batzartu eurakaz, ez deustie barriro harrerarik egin. Orduan, egon behar dogu, arduradun politiko gisa, hor gainean egon behar dogu, gainbegiratu eta hemen onartzen dana indarrean jarri. Persona guztien eskubideak balioan jarri. Menpetasun-egoeran dagoan pertsona batek bere urian edo inguruan puntu batetik bestera bidaiatzea edo mobidutea lortzen dauenean, bape giza laguntzarik barik, ahalik eta eragozpen txikienakaz, orduan hartu geinke benetako garraio publiko inklusibotzat.

Barriro be eskatzen gabilz, pertsona horreek eskatzen dabe, eskubide osoko herritarrak, ekin deiogun lanari. Nahikoa da. Eta sendotu dagiguzan jasaten daben desbardintasunagaz amaituko daben urtenbideak, eta eurak kontuan hartu daiguzan gure garraio publikoaren sistemarako urtenbiderik onenak zein diran pentsatzeko, planteatzeko, benetan inklusiboa izan daiten eta guztiontzako aukera-bardintasuna lortu dagian. Batzuetan inbersinoak Europar Batasunak ezartzen deuskuzan parametroak zorrotz betetzeko bakarrik egiten diralako. Kasu batzuetan. Baina ez dira benetako baldintza ezin hobeak sortzen benetako urtenbideak emoteko. Kezkatzen gaituena da begira jarraitzea, edo gehiegi pentsau, eta bere garaian emon ziran urtenbide berberak eskaintzea.

Esperientziak erakutsi dau urtenbide horreek ez dabezala beren eskaera gehienak konpontzen, ez beharrak, ez diralako urtenbide egokienak. Zuzenean Gomez Viar jaunak aipatu deuskun sakagailua aitatzeko, markesinaren edo autobusaren barruko informazio akustikoa aktibatzen dauen sakagailu bat da, bai, baina persona horreek, metodo hori erabilten dabeneke, balorazio negatiboa egiten dabe, arrazoi batzukaitik. Sistema diskriminatzailetzat jo daiteke; izan be, gainerako herritarrek ez dauke aparatu berezi, indibidual eta pribaturik, aitatutako mandoa bezala; edo ikusmen arazoak daukezan beste leku batzuetako personen bisita daukagunean, ez dabe megafoniarako sarbiderik izango, ez daukelako mando hori.

Sistema horrek enpresa bateri elementu bat eskuratuarazoten deuto, eta prezio bategaz, ganera, kasu honetan ONCEn afiliatura zagozan ala ez kontuan hartuta aldatzen dana. Gogoratu behar dogu ikusmen arazoak daukezan persona guztiak ez dagozala diagnostikauta, edo ez dabela diagnostikautako desgaitasunik. Eta beraz, pertsona horreetako asko ez dagoz afiliatura holako, holako alkarteetara.

Arduradun publiko gisa daukagun konpromisoa da personen, persona guztien desbardintasun-egoerari aurre egiteko neurri barriak txertatzeko lanean hastea, eskatzen jakuzan helburuak lortzeko neurri egokituak, pentsatuak eta adostuak hartuta. Helburu horreek gure lurraldea persona guztientzat inklusiboagoa eta seguruagoa izan daiten lortzeko izan behar dira. Horrek ez dau esan gura desgaitasuna dauken personek Braille irakurteko informazio-kartelak daukezan gune publiko batzuk edo sartzeko arrapalak eta komun egokituak euki leikiezanik. Hain zuzen be, erronka handiagoa da, helburua baita gure herritarren beharrak ulertzea, askotarikoak, dinamikoak eta interaktiboak bilakaeran.

Beraz, kontuan hartu behar da gure helburua ez dala espazio fisikoari eta garraibideei buruzkoa bakarrik, informazioari, komunikazioei, teknologiar, prozedurei, produktuei eta zerbitzuei buruzkoak be bai.

Neurri politikoakaz desgaitasuna dauken personak integratzea lortzen dan unean, diskriminazio-oztoporik bako gizartetzat jotzen da. Holan, oztopo psikologikoak ezabatzen dira, eta desgaitasun-egoeran dagozan personak gizartearen parte sentitzen dira, eta bardin-bardin aurre egiten deusie besteei. Eskerrik asko. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias.. En el turno de respuesta, en nombre de la Diputación, tiene la palabra el señor Gómez Viar.

El Sr. **GÓMEZ VIAR** jaunak: Eskerrik asko zure hitzaldiagatik, Cabornero andrea. Nik uste dot danok gabilzala norabide horretan arraunean saiatzen. Garraioak be bardintasunean oinarritu behar dau. Nik personalki pentsatzen dot, eta Saitetik nik uste dot danok partekatzen dogula, desgaitasun bat pairatzen daben personetatik garrantzitsuena, azken finean, danok lehenago edo geroago sufriduko dogula, zorionez, azkenean handiagoak egiten joaten bagara danok izango dogulako desgaitasun motaren bat, edozein motatakoa.

Nik uste dot personak eskatzen deuskuena duintasun apur bat dala. Hau da, ez dagiela zain egon behar norbait egon daiten adierazi ahal izateko edo esan ahal izateko. Gu horretan gabilz beharren. Buru nazen Sailagaitik berba egin neike, gugaz egon gura daben, berba egin gura daben hainbat alkarteakaz berba egiten dogula, nik jenteari personalki be deitzen deusat. Nik uste dot horregaitik ez dagoala arazorik, eta gainera zuk eta nik askotan berba egin dogu honetaz, eta nik uste dot hemen ordezkaturata gagozan talde guztiak inor ez dabilela honetaz hauteskundeetarako gai bat egiten, ezta inolako dominak jartzen be. Baizik eta gaur egun arazo bat daukan jentearen baldintzak hobetzen. Esaten neutsun moduan, bihar zuk eta nik euki geinkena.

Jakina, zerotik ehunera pasatzea gatxa da arazoaren konponbidean, eta batez be Bizkaibusen, ehun eta piku linea eta 335 autobus dirala, edozein neurri ezartzen saiatuta be ez da gaurtik astelehenerako. Guk, nire ustez, gaur bereziki garrantzitsua zan gai honetan, hala nola ikusmen-urritasuna dauken personen gaian, mandoaren gaiagaz, hori jarri zan, hobekuntza bat izan zan, akats batzuk dituela antzeman dogu, horreek hobetzen saiatuko gara, egoera hori arintzen saiatu daitezana, eta ez gara hor be geratuko. Bilatu daigun moduren bat, espero dot laster hona ekartea, Bizkaira etorri daitekeen edonork, bide batez esateko, irisgarritasunari buruzko gaietan buelta bat emotea besterik ez dagoala hemen daukaguna eta beste leku batzuetan daukaguna ikusteko. Nik uste dot Bizkaira datorren edonork ahal dauela, mando hori euki barik, autobus bat erabili, geltokiak kantautu. Hori guztia bat dator daukagun sistemagaz. SIO sistematik SIENA sistemara aldatzea bezalako teknologiak implementatzen gabilz, eta eten barik goaz begiratzen zerk huts egiten dauen, eta zer dan hobetu daitekeena.

Nik ez dot inoiz txartzat hartzen zerbait txarto dabilela edo arazo txikiren bat daukala esatea. Gu Departamentutik erasotzen gabilz, hobetzen. Nik uste dot esan deusudan neurriagaz jenteak gitxiago arduratu behar dauela etengabe mandoa sakatzen joan barik, eta behin sakatuta euki dagiela ibilbide osoa. Eta esaten neutsun moduan, zuk, nik, eta segurutik Aukera Berriko alkarteko jenteak, eretxi bat partekatzen dosgu mandoaren gaiari buruz, eta gu lanean gabilz gitxi gorabehera denpora gitxian zer urtenbide ezarri daiteken ikusteko, gailu hori behar ez izateko.

Eskerrak emon bai alkarteari, bai zuri zuen ekimena eta baita gainerako taldeei be. Beste barik. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Tercer punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Interpelación  
([R.E.11/E/2020/0000377](#))

**Autor:** Ilardia Olangua, Beatriz (EHB)

**Asunto:** Consecuencias derivadas de la catástrofe del vertedero Verter Recycling de Zaldibar.

**Documento** **Principal:**  
([R.E.11/E/2020/0000377](#))

**Expediente:** ([11/B/18/0000859](#))

3.- Hurrengo idatziari buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan eretxi ezker, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itauna  
([11/E/2020/0000377SE](#))

**Egilea:** Ilardia Olangua, Beatriz (EHB)

**Gaia:** Zaldibarko Verter Recycling zabortejiaren hondamendiak eragindako ondorioak.

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2020/0000377SE](#))

**Espediente:** ([11/B/18/0000859](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la Juntera que ha presentado la iniciativa; por tanto, señora Ilardia Olangua, tiene la palabra.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Señora Presidenta, miembros de la Mesa, junteros, trabajadores e invitados, buenos días.

Hoy traemos a las Juntas Generales el tema de Zaldibar, porque creemos que es necesario hacer un ejercicio de clarificación de lo ocurrido en las últimas semanas. Y esa

es la razón de la pregunta que hacemos hoy. En primer lugar, lo primero que queremos hacer, como no puede ser de otra manera, es expresar nuestra más sincera solidaridad a los familiares y amigos de Alberto Soroluze y Joaquín Beltrán.

Gure alkartasuna adierazi gura deutsegu Alberto Soroluze eta Joaquin Beltranen familiei, beste modu batera izan ezin daitekeen moduan. Une honetan zauririk odoltsuena da. Lehen hitz honeek aprobetxatu nahi ditugu, halaber, Imanol Pradales diputaduari eskerrak emoteko goiz haretan bertan telefonoa hartu euskulako, eraispenaren osteko lehenengo orduetan izandako egoeraren barri emoteko.

Hori esanda, uste dogu urrats gehiago emon behar dirala, askoz gehiago, Zaldibarren gertatu dana ulertzeko informazino guztia argitzeko eta herritarren eskura jartzeko.

En el desprendimiento del vertedero de Zaldibar siguen desaparecidos dos trabajadores, dos vizcaínos. Sobre la vía principal de Bizkaia cayeron toneladas de basura, lo que provocó el corte de la A8, que sigue parcialmente cortada. El fuego originado en el vertedero ha afectado a la calidad del aire y del agua, y otras incógnitas siguen abiertas en la actualidad, además de que el desprendimiento ha obligado a la Diputación a realizar diversas intervenciones, que se siguen realizando y que se han seguido realizando de forma más segura. En la A8 se ha iniciado la construcción de un muro, mientras operarios de la Diputación tratan de sofocar los incendios y evitar la inestabilidad del vertedero. A estos también les agradecemos el trabajo realizado.

Bi langile bizkaitar desagertuta, Bizkaiko bide nagusietako bat partzialki moztuta, Aldundiko langileak lehenengo orduetan beharrezko babesik gabe lan egiten, izan diren hainbat sutereren eta isuriaren ondorioak Bizkaiko hainbat udalerritan, airearen kalidadearen inguruko zalantzak, uraren kalidadearen inguruko zalantzak. Horixe da gaur egun daukagun balantzea. Luiziaren ondorengo lehen orduetan, zalantzarik gabe, deskoordinazino argi baten lekuko izan ginan. Koordinazino falta horrek eraginda, ertzainek, suhiltzaileek eta autobidea garbitzeko lan egin eben langileek, horreetako asko Aldundiaren menpeko langileak, lekuan bertan jardun eben, beharrezko babesik barik. Eta hori egiaztatu ahal izan dogu suhiltzaileen taldeko kideek egindako adierazpenakaitik, salatu dabelako zelan heldu ziran bertara, amiantoa aurkitu eikeela jakin barik.

Son trabajadores de la Diputación de Bizkaia. Y eso no lo debemos olvidar, eso no lo podemos olvidar. Los que, como consecuencia de una descoordinación grave, han estado trabajando sin las medidas de protección necesarias, son trabajadores de la Diputación de Bizkaia. Personas sin la ropa y protección necesarias en un lugar con amianto. Y eso es muy grave, muy grave. Ellos lo han dicho claramente y lo han denunciado, y ahora les parece que es el turno de la Diputación. La Diputación tiene que dar un paso al frente para defender los intereses de sus trabajadores y de los vizcaínos.

Uste dogu nahikoa arrazoi dagozala Zaldibarko zabortegia eraitsi ondoren gertatu dan guztiaren gainean argia egiteko. Eta Bizkaian bizi diran personen eskubideak defendatzeko. Dinodan moduan, nahikoa arrazoi dago mahai gainean. Orain dala aste bi Durangoko epaitegi batek lehenengo urratsak emon ebazan gertatutakoa ikertzeko eta erantzukizun penalak argitzeko. Izan be, ez daigun ahaztu Zaldibarko luizia ez dala hondamendi natural bat, ez dala. Giza hondamendia da, ingurumen hondamendia da, eta osasun-hondamendia da. Eta, gainera, konponbideak guztion artean aurkitu behar ditugu, erantzukizunak be argitu behar dira. Euskal Herria Bildutik uste dugu badala garaia Aldundiak arduraz jokatzeko.

Hace dos semanas nos enteramos, como decía, de que un juzgado de Durango ha abierto una vía penal para investigar lo ocurrido. Y también para depurar responsabilidades. Nos parece que es tiempo suficiente esas dos semanas para saber qué opina

la Diputación ante esto, qué piensa hacer. Ahí tenemos la oportunidad, en ese procedimiento también tenemos una oportunidad. La oportunidad doble, además. Este estudio nos permitirá recibir información de primera mano, no dependeremos de la información que proporcionen los medios de comunicación, y por otro lado, no podemos obviar que la propia Diputación se ha erigido como generadora de la causa de la catástrofe según la propia empresa Verter Recycling. La empresa afirma que la Diputación puede ser culpable por la variante de Ermua. Y, por lo tanto, me parece que la personación también es importante en ese procedimiento penal.

Aldundiak ezin dau eta ez dau beste alde batera begiratu behar, eta eskura dituen tresna guztiak erabili behar ditu, eta hori da horreetako bat, Durangon irekitako prozedura judicial hau, pertsonatzeko, arazteko, ezagutzeko, horretarako guztirako. Horregaitik esan dot prozedura judicial honegaz aukera bikotxa daukagula. Herritarrek hainbat kontu eskatzen dabez: langileak aurkitzea, informazioan gardentasuna izatea, osasuna zaintzea, eta erantzukizunak hartzea eta araztea. Ezin dogu alde batera itxi, gainera, Verter Recycling enpresak, aipatu barri dodana, Ermuko saihebidetako lanak aipatu dituela arduradun posible gisa. Ezin dogu hau alde batera itxi.

Por lo tanto, la pregunta que hacemos es muy concreta: ¿se va a personar la Diputación Foral de Bizkaia en este procedimiento judicial? Beraz, egiten dugun galdera oso argia eta zehatza da, eta gure ustez harira datorrena: Bizkaiko Foru Aldundia Durangon zabalduetako prozedura judicial honetan pertsonatuko da? Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. En el turno de respuesta, tiene la palabra el señor Diputado General.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Señora presidenta, señores y señoras diputados y diputadas, señora portavoz del grupo EH Bildu, a todos y todas buenos días.

Nik badakit EH Bildu taldeak galdera zehatz horregaz amaitzen dauela bere interpelazioa. Nik, jakina, arazo barik erantzungo dot galderea. Baina galdera horren erantzunak testuingurua behar dau, zuk egin dozun modu berean. Beraz, kontestualizazio horregaz hasi gura dot.

Niretzat ezinbestekoak diran bi aipamenegaz hasiko naz, niretzat oso garrantzitsuak dira. Lehenengoa: nire errespetua eta nire alkartasuna, eta Aldundiko Gobernu honena, Albertoren eta Joaquinen familiakaz. Laster aurkitzea espero dot. Eta ez dot berba gehiagorik aurkitzen, nire ustez berba bakar batek be ez dau balio hutsune hori beteteko, batek bez. Egin neike berba eta berba, baina bapez, hori bakarrik, errespetua eta alkartasuna.

Gure esku dagoan guztia egiten gabilz, ahal dogun guztia. Bakotxa bere funtzionetik, bakoitza bere arduratik. Nik ulertzen dot, gainera, hori gitxitzat hartzea, ulertzen dot. Baina esandakoa, eta barriro dinot, laster aurkitzea espero dot.

Eta errespetuaren eta alkartasunaren ostean, esker ona be adierazi nahi dot. Eskerrak inguru horretan lan egiten daben profesional guztiei, lehen minututik, gau eta egun. Eta honegaz gogoan hartzen dodaz makineta beharginak, geologoak, suhiltzaileak, ertzainak, Interbiak-eko langileak, SOS Deiak, udal beharginak. Hainbeste, danei eskerrak. Yo quiero decirles desde aquí que agradezco su afecto. Sé lo duro que es hacerlo así, así de día y de noche. Así que gracias.

Arduradunei be nire esker ona adierazi nahi deusiet, ordezkari politikoei. Lehenengo lehendakariari krisialdiaren hasieratik bera buru jartzearen, eta holan dinot, eta urtenbideak bilatzeagatik, Diputatu Nagusi honegaz eten barikgabe harremanetan eta

koordinatuta egoteagatik. Lehendakariagaz batera, Eusko Jaurlaritza osoari, sailburuei eta guztiei eskerrak emon gura deusiedaz. Inguruko alkateei be bai. Nire babesa eta alkartasuna horreei guztiei. Badakit konplikatua dan egoera baten be dana emoten dabilzala, eta danontzat barria dala. Eta horregaitik, nire laguntza eta babesa, une gatx honeetan.

laguntza eta babesa, logikoki, bateragarriak kritikagaz eta autokritikagaz, baita autokritikagaz be. Izan be, ziur, ziur, gauza batzuk hobeto egin geinkeazala, ziur.

Egunotan hain baliotsua dana, hain preziatua dena, segurtasuna eta lasaitasuna, galdu daben pertsonen jarrera be ulertzen dot. Ulertzen do haserre egotea, bildurrez. Baina jakin dagiela konplexua dan ustekabeko zerbaiti aurre egiten gabilzala. Euskadin zabortegei bat jausten dan lehenengo aldia da, eta ezohiko egoera baten aurrean azkar erreakzionau dogu. Profesionalil onenak ditugu tokian bertan lanean, dakizuen moduan bertako eta nazinoarteko adituengana jo dogu, erakundeen arteko koordinazinoa erabatekoa da, eta egunero ikasten gabilz. Eta bai, agian krisiaren kudeaketan akatsak eginez, bai, baina gure gain hartzen dogun erantzukizunetik egindako akatsak. Eta batez be egoera batetik, ahaztu behar ez doguna, larrialdi egoera batetik, larrialdi egoera batetik. Eta larrialdi baten beti preminazkoenetik hasi behar da, eta benetan premiazkoena danetik.

Guretzat lehenengo gauza desagertutako personak izan ziran. Lehenengo barrien arabera, 7 persona egozan desagertuta. Ez genkian autobidean ibilgailurik harrapatuta ete egoan be, ez genkian lehenengo minutuetan. Azkenean, tragikoki, Alberto eta Joaquin izan ziran. Lurra mobiduteko langileak eta makinak mobilizau genduzan, suhiltzaileak mobilizau genduzan, behar bezala babestutako bilaketan parte hartzen jarraitzen dabenak, Aldundiko 45 profesional, mobilizautako 3 suhiltzaile-parke, 3 hondeamakina eta 11 kamioi erorketa izan zan gauean bertan. Hori izan zan lehentasuna lehen minututik, hareek lehenbailehen bilatzea. Hori zan personen lehentasuna, han egozan persona guztiena, eta baita Interbiak koordinazino zentroan genganena be.

Autobidea lehenbailehen zabaltzea zan beste helburu bat, bai, Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko komunikazino bide nagusia dalako, halan da. Aldundiak bypass bat jarri eban, zirkulazinoa ordu gitxian zabaldu zan barrero, eta ordu gitxian be Aldundiko geologoen prisma batzuk jarri ebezan, mugarri batzuk, Ertzaintzaren laguntzagaz ibar osoan, eta guztira 19 prisma balizatu ziran. Horreekaz, lurjausi osoa monitorizau genduan. Eta horreetako batzuk jartzeko helikopterotik zintzilik jarri ziran, arrisku bat euren gain hartuta, eta zergaitik? Han barruan zer gertatzen zan jakin behar gendualako, informazinoa izan behar genduan, eta hori egin eben, bai, Aldundiko geologoen.

Berehala ulertu genduan lurraren ezegonkortasuna arazo larria zala, oso-oso larria, lurra barrero jausteko aukera zala-ta. Oraindino be luizi gehiago gertatzeko arriskua dago, egon dago, horregaitik erabagi genduan zuhurtasunez jokatzela, gure erantzukizun handia hori dalako, eta une honetan be halan da, biktima gehiago ez eragitea. Hori danaren gainetik. Eta gure etsaia ezegonkortasuna da oraindik, gainerako jardunak baldintzatu dituen ezegonkortasuna, guztiak. Suteak itzaltzea baldintzatu dau, desagertutako personak bilatzea baldintzatu dau, eta datozen hilabeteetan be baldintzatuko gaitu. Lurra egonkortzeak lan handia eskatuko dau, lan handia, eta denpora asko, hilabeteak be bai. Eta nik honegaz ez dot esan gura informazino pribilegiatua daukadanik, baina badakigu hori holan izango dala.

Eta hau dinot sufridu izan dogun beste zoritxar baten esperientziagaitik, oin dala ez asko. Ondarroako luizia gogoratuko dozue. Hori 2016an izan zan, martiaren 8an. Zauri hori, hain zuzen be, orain dala hilabete gitxi itxi dugu. Gogoan daukat, gainera, Ondarroan, mendi-hegala haren azpian, Kamiñalden, auzo oso bat bizi zala. Orduan be zero arriskuaren alde egin genduan, oso ondo gogoratuko dozue. Denon artean erabagi behar izan genduan 179 familia ateratea, eta hori izugarri inpopularra zan, oso deserosoa, baina beharrezkoa. Eta gaur esan daiteke zuzen jokatu zala.

Gogoan daukat Kamiñaldeko mendi-hegala 10 cm mobidu zala egunero istripuaren lehen 30 orduetan, 10 cm. Ba Zaldibarko txosten geoteknikoek ez ez dabe mobomendu esanguratsurik igarri zabortegian. Beraz, adituak esaten jabilkuz ingurua finkatzen doala, baina ez dagoala mobimentu handirik. Eta hori garrantzitsua da, baina arriskua dago, arriskua dago ondino. Arrakalak dagoz hainbat gunetan, eta batzuk esanguratsuak dira, oso garrantzitsuak, handiak.

Beste arrisku bat be badago metanoak eragindako suteak. Horregaitik, Bizkaiko suhiltzaile-talde bat han dago jarraian, ezagutza eta inplikazio guztia emon daben suhiltzaileak. Urtenbideak jarri dabez mahai gainean, helikopteroen kontua izan zan moduan, makineria astuna erabili behar zala esan zanean bezala, eta une honetan helikopteroen bidez erabilten dabilzan apar zigilatzailea be hor dago, orain lurrez zabaltzen doazena. Horregaitik jarri dogu, era berean, protokolo bat autobidea mozteko eta alertarik txikiena sortuko balitz trafikoa desbideratzeko, alerta goiztiarra eta alerta esanguratsua, edozein erorketa-mota balego. Biktima gehiago ez egoteko behar diran neurriak hartzen jarraitzen dogu, beti eb, batez be, segurtasuna bermatzeko.

Horregaitik beragaitik hasi gar harresia altxatzen, ezagutzen dozuenez, 11 metroko zabalera eta 8 metroko altuerako horma bat. Esan geinke 8 metro eukiko dituala. Horregaitik, pantaila dinamikoak jarriko ditugu mendi-hegalean, energia xahutu eta lur-jausi posiblea zatitu ahal izateko. Horregaitik, patruila iraunkorrak eta semaforoak jarri ditugu autobidean, eta, ondino be, suhiltzaileak jarraian dagoz inguruan, eta lurra egonkortzeko lanetan gabiltz. Ze hori da areriorik handiena, daukagun arazo handia egonkortze hori da. Ezin dogu alde batera itxi uneotan erortzeko daukan gaitasun handi hori, oraindik daukan indar erraldoi hori. Baina ziur nago hori denporeagaz, pazientziagaz, lanarekin, hori dala egin behar doguna, egoera hori garaituko dogula. Ondarroan egin genduan moduan, hori izan zan konpromisoa, alkateengandik gertu egotea, ahal dogun guztian laguntzea, ustekabeei erantzuteko dekretu bat be badagoela euren eskura gogoratuta. Aldundia han egon da, Bizkaiaren zerbitzura.

Dicho todo esto, ahora vengo ya al núcleo de la pregunta. ¿Si nos presentamos como acusación particular? La respuesta es sí. Sí, sin duda, así lo haremos, la Diputación se presentará. Pero se presentará porque hemos sido perjudicados, pero porque han pasado otras muchas cosas. Y en este hecho han sido muchas las personas afectadas.

En primer lugar los muertos y sus familias, los afectados sí. Por otro lado, todas las personas que viven en la zona y todos los ciudadanos, ya que en su día a día se han visto afectados por los diferentes grados de contaminación provocados por la quema y caída de basura. Así como los trabajadores y las personas que han trabajado en la zona, personas de los servicios de rescate y emergendia. Porque ellos han tenido que tomar medidas para trabajar. También los daños generados en la autopista y la carretera. Nosotros también nos hemos visto perjudicados como institución. Por todo ello, os aseguro que nos personaremos como acusación particular. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. En el turno de respuesta, tiene la palabra la señora Ilardia Olangua.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Señor Rementeria. Ulertzen dogu, ulertzen dogu lehendakariari eskerrak emotea, baina guk ez dogu ahazten herritarrek bosgarren egunera arte 'Urkullu non dago' esaten ebela. Oso kezkatuta zagoz mendi-hegalaren ezegonkortasunagaz. Gu be kezkatzen gaitu horrek, eta, gainera, pozten gara publikoki esaten dozulako, mezu ofizialak kontrakoa transmititzen dau eta. Mendi-hegala oso gitxi mobidu dala dino, teknikariek egiaztatzen dabela oso gitxi mobidu dala. Baina jakin nahi doguna da mendi-

hegala hori zenbat mobidu dan, benetan informazino hori izateko eta esan ahal izateko ez dagoala barrero jausteko arriskurik.

La respuesta dada, que nos personaremos, se personará la Diputación. Es bueno, es bueno y es una satisfacción dar ese paso. Nos parece una muy buena noticia porque la Diputación está directamente relacionada con el desastre ocurrido en Zaldibar, como he dicho en mi primera intervención. No podemos quedarnos mientras la Diputación está esperando, esperando a lo que actúen otras instituciones o a ver qué hacen. Nos parece necesaria la colaboración institucional en este tema. No debemos olvidar que miles de ciudadanos se han visto afectados, por el desprendimiento y también por el incendio, y que la falta de control ha estado clara.

Tal y como nos dijo el propio lehendakari Urkullu, hace unos días. El propio lehendakari Urkullu ha reconocido públicamente que su Gobierno ha cometido errores. Por lo tanto, por un lado no podemos estar esperando a lo que hace el Gobierno Vasco, o estar mirando a lo que no hace. Y por otro lado, los vizcaínos tenemos que saber quiénes son los responsables de esos errores.

Espero dogu, gainera, Aldundiak gardentasunez jokatzera, bai herritarrei begira, bai oposizioari begira, eta jasotzen daben informazioa partekatzea. Izan be, barrero dinogu, Zaldibarko zaborteziaren moduko gai larri baten aurrean, alkarregazko lana ezinbestekoa da, eta hizlari honek, beste batzuetan egin dauen moduan, barrero be eskua luzatzen deusagu taldearen izenean, esku zintzoa, informazino hori guztia, gardentasun hori guztia, lankidetzan jardutea eta alkarregaz lan egitea lortzeko, uste dogulako egoera horren aurrean ezin dala bestela izan eta ez dala bestela izan behar.

Amaitzeko eta lehenengo txandan emon deuskuzun informazioa osatzeko, Rementeria jauna, aste honetan sortu diran bi kontu botatzen ditugu, beharbada esango deustazu ez dala interpelazioaren arrazoa, baina ulertzen dogu guztiz lotuta dagoala. Larrialdia kudeatzen daben teknikoak azken egunetan oso kezkatuta agertu dira mendi-hegalaren egonkortasun faltagaitik, zuk lehenengo interbentzio horretan aitatu dozun moduan, eta autobidera gertatu leiteken lur jausiagaitik. Gainera, atzo bertan SOS Deiakak larrialdi eta ebakuazino neurriak jakinarazo eutsiezan Eitzaga auzoko bizilagunei, beste jausi bat gertatu ezker be. Rementeria jauna, zuk ziurtau zeinke gaur ez dala posible barrero lurra jaustea? Ziurtau zeinke? Puede asegurarnos que no es posible a día de hoy que no es posible?

Eta aste honetan jakin dogu Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko desadostasun bat be, Artigas eta Jatako zaborteziaren balizko erabilerrari buruz. Itxidazu esaten orain arte hori hondamendi honen ondorengo kudeaketaren ezaugarri izan dan inprobisazioaren beste adibide bat dala. Eta hau alde batera itxita, goazen garrantzitsuenera.

Zaldibarko zaborteziaren zer dagoan badakizu? Holan bada, esaiguzu, publikoki esan Zaldibarko zaborteziaren zer dagoan. Hori da, hain zuzen, Bizkaiko herritarrek jakin nahi daben galderetako bat, eta, batez be, zuzenean eragindakoei. Zer dago Zaldibarko zaborteziaren?

Eta badakizue, gainera, hondakinak nora eroaten dabilzan? Hori dalako Bizkaiko herritarrek jakin gura daben bigarren galdera.

Rementeria jauna, amaitzeko, esan behar deusut batez be zuzenean eragindako herritarrek ez dabela gure agintarien alkartasunik behar, gardentasuna, erantzunak eta segurtasuna behar dabezala. Hori da herritarrek gura dabena.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Iardia. Se le ha acabado el tiempo y en el turno de respuesta, señor Diputado General, no tengo que decir que la interpelación realizada al señor Diputado General es la que está redactada. Gracias. Tiene la palabra señor Diputado General.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Gracias señora Presidenta. Mire, señora Iardia, por un lado ofrece usted la mano y por el otro hace usted algunas preguntas que, de verdad, no me dan a mí ninguna ninguna confianza en esa mano. Qué pregunta hace usted diciendo que tiene usted que asegurar, que asegure que no habrá ningún desprendimiento... ¿Cree usted que puede hacerse eso, teniendo en cuenta lo expuesto anteriormente?

Nik esango deusuet gauza batzuk ezin dirala esan. Nik hemen argi eta garbi esaten deusuet nik beste jarrera bat espero nebala alderdi politiko batzuegandik, zuena barne, beste jarrera bat. Espero neban, uste neban zentzu horretan beste jarrera bat egon eitekeala, lehenengo minututik, espero neban. Hortik Diputadua den deia be, 'Jakinarazo, mesedez, talde politikoei zer gertatzen dan' esateko. Beste jarrera bat espero neban, baina konturatu nintzan ez zala holan, eta barriro konturatzen naz beti dala zenbat eta okerrago hobeto niretzat, nire alderdi politikoarentzat, hobeto Gobernuaren aurka joateko. Nahikoa da. Nire eretxia da, nire eretxia da, eta holan esaten deusuet.

Uste dot barriro be oker zabiziela lehentasunetan. Barriro egin dozue, beti polemikaren bila, beti zarataren bila, beti ia zelan kalte egin Gobernuari. Benetan hori egitea tokatzen zan? Uste dozue horretarako unea zala? Mahai gainean halako desgrazia geunkanean eta oraindino be daukagula? Nik uste dot, barriro dinot, ez dakit zer gertatzen dan gizarte honetan halako txoko bat ez aurkitzeko, esateko moduan, ezin gara danok batera egon holako zoritar baten? Nik mahai gainean jartzen dot zelan jokatu dogun egoera honetan, zelan jokatu dozuen egoera honetan eta zelan jokatu dogun beste batzuetan.

Adibidez, barriro be Ondarroara joko dot. Zelan jardun genduan Ondarroan, eta bardin zan alkatea nor zan, nor zan, zein taldetakoa, zein alderdi politiko. Bardin-bardin zan, danak batera, alkarri lagunduz, erabagiak hartuz, erabagiz, zer egin behar zan pentsetan, hara joanez, danak batera egonda, barriro dinot. Nik hori ez dot ikusi. Ez dot ikusi. Ez dot ikusi.

Guretzat lehentasuna argi dago: ezegonkortasunerako konponbideak, suteetarako konponbideak, autobideko segurtasuna, bi personak Joaquin eta Alberto aurkitzea. Horreek dira lehentasunak. Aldundia han egon da, han egongo da, eta han egoten jarraituko dau, eta lehenengo minututik. Nik bai esan nahi deusuet trafikoan izaten dala, laguntza betebeharraren omisino bat egiten dozunean, hori delitua da ezta? Ba hori be antietikoa da, zitalkeria morala da, eta nik bai sumatzen dot hori gertatu dala hemen, hemen gertatu dala formazio politiko batzuen aldetik. Egon da egoera hori, bueno egoera hori, erabagi bat hartu behar dogunean ni ezkututzen naz, ni ez naz agertzen. Baina ez naz agertzen eta ez nago, are gehiago, jentearen bildurra manipulaten be ibili naz. Hori be sumatu behar izan dogu. Baina helduko da unea egoera horri buruz be berba egiteko. Orain zorigatx bat daukagu, egoera bat daukagu mahai gainean, erorketa bat, nik konfiantza handia daukat jentearengan, kontuan izan behar da bildur handia pasau dala eta beldur handia pasatzen dabilela. Eta argi eta garbi esan dot jenteagaz, alkateakaz, gizarteagaz eta herriagaz egon behar dogula. Barriro dinot, eta ez nabil alderdi politikoek erakundeei lagundu behar izateari buruz. Ni ez nabil horretaz, gizarteari, herriari, euri egin behar deutsegu eta euri laguntzeaz nabil, horretaz nabil, herriari begira holako egoeretan danok batera egoteko beharraz nabil.

Baina etorriko da alde guztiek erantzukizunak hartzeko garaia, jakina. Guk akusazio partikularra aurkeztuko dogu, bai, eta ikusiko dogu, ikusiko dogu nork baimendu dauen zabortegea zabaltzea, nork izan dauen erantzukizuna eremu guztietan, udalarena barne,

Vamos a seguir adoptando medidas porque sabemos que los cuidadores informales son un ámbito y porque eso va más allá y hay otros cuidadores en ese pequeño ecosistema, en ese pequeño ecosistema que se crea en cada casa. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Séptimo punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

7.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2020/0000349](#))

**Autor:** De Madariaga Martín, Eneritz (EB)

**Asunto:** Las acciones desarrolladas por parte del Gobierno Foral en la gestión de la catástrofe de Zaldibar.

**Documento**

([R.E.11/E/2020/0000349](#))

**Expediente:** ([11/B/25/0000839](#))

**Principal:**

7.- Hurrengo idatziari buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan eretxi ezker, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2020/0000349SE](#))

**Egilea:** De Madariaga Martín, Eneritz (EB)

**Gaia:** Foru Gobernuak Zaldibarko hondamendia kudeatzeko aurrera eroan dituan ekintzak.

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2020/0000349SE](#))

**Expediente:** ([11/B/25/0000839](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del grupo juntero que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señora De Madariaga Martín, desde el escaño, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias señora Presidenta. Buenos días a todos y todas.

EH Bilduk egindako interpelazioan azaldu deuskuz Gobernuak zaborteziaren lur-jausiaren ondorioz egin dituen ekintzetako batzuk. Foru Aldundiko hainbat departamentu dira, gure ustez, hondamendiaren kudeaketan esku hartu behar izan dabena, eta, era berean, sail horreek garatu beharreko jarduketak. Era berean, gure ustez, alkarren artean koordinatuta egon behar dabe, baina, aldi berean, baita be Udalagaz eta Eusko Jaurlaritzagaz koordinatuta egon behar dabe. Guretzat, Elkarrekin Bizkaiarentzat, koordinatutako da esku-hartze on baten giltzarria, horrek bermatuko daudelako eraginkorra eta efizientea izatea eta, gainera, segurtasun handiagoa emotea esku hartzen dabena persona guztientzat eta eragindako

personentzat. Eta horregaitik galdetu gura geuntsan Diputatu Nagusiari, Unai Rementeriar, ze ekintza garatu zituan Foru Gobernuak hondamendi honen kudeaketan eta ze koordinazino egon dan eragile ezbardinen artean. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, responde el señor Diputado General. Tiene usted la palabra.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Señora Presidenta, gracias. Señora De Madariaga también.

Nik, logikoa danez, zuk esan dozun moduan, ekintzei buruz berba egiteko aukera izan dogu jada. Bai adierazi gurako neuke erakundeen arteko koordinazinoa ona izan dala, ona izan dala, beti hobetu behar dogula, noski, hobetu daitekeela bai, zalantzarik gabe, bai. Baina ona eta emonkorra izan da, hori ere esan neizu. Bakotxak bere eskumenaren barruan eta bakotxak bere arduren barruan, bakotxak bere lana egin dau. Nik zentrau naiteke, zuk ondo ulertuko dozun moduan, Bizkaiko Foru Aldundiak egin dauen horretan, kaltetutako sailetan erortzeagaz zerikusia daukan horretan, eta Interbiakegaz be bai.

Gure ardura izan dira fronte zehatz batzuk larrialdi horretan, hori da egin doguna. Gertaeraren barri izan bezain laster, larrialdietako langileak, suhiltzaileak eta Interbiak bertaratu ginan, eta aktiboki parte hartu genduan desagertutako bi personak erreskatatzeko ahaleginean. Hori egin zan lehenengo minututik, parte-hartze hori. Segurtasuneko Sailburuak eta Diputadu honek, Pradales diputaduagaz batera, bi erakundeetako langile teknikoakaz batera, lehenengo erabagiak hartu genduzan, han bertan zabaldu eben krisi-mahai baten, Interbiaken kontrol-zentroan. Batzarrok hurrengo egunetan errepikatu ziran, Lehendakariaren gidaritzapean. Lehendakariaren, lehen be esan dot, eta Diputatu Nagusi honen arteko hartu-emona eten bakoa izan da, eta gaur egun bilaketan laguntzen jarraitzen dogu, suhiltzaileakaz, mendi-hegala egonkortuz, eta alderdi hori funtsezkoa da lan honetan. Era berean, larrialdietako operatibo osoaren aterkiaren barruan lankidetzan gabiz Ertzaintzagaz eta profesionalen artean alkar ulertze oso garrantzitsuagaz; izan be, erakundeen arteko lankidetzaren oinarria da profesionalek eta teknikariek alkarregaz lan egitea.

Eta horreek dira guk hartu ditugun erabagi konpartituak. Suhiltzaileek etengabe lagundu dabe suak amatetan eta foku barriak aurreikusten. Lehen be esan dot, une honetan erabilten dabilzan zigilatzeoko filma eta lurra dala-ta, han dabilzan kontratakaz alkarlanean dabilz. Eta gero, Jasangarritasun Sailak koordinazinoa egin dau zabortegeien egoerari buruz deitu diran batzar guztietara joateko.

Udalakazko koordinazinoa erabatekoa izan da, alkateengandik gertu egon gara, ni neu eurakaz, babesa emon deutsegu, zalantzak argitu deutseguz. Barrero dinot, beti gehiago egin daiteke, beti, zalantzarik gabe, eta hobetu beharko ditugun egoerak eta gauzak egongo dira. Baina koordinazinoa ez da arazo bat izan larrialdi honetan, ez da arazo bat orain be, guztiz kontrakoa baino, uste dot benetako aliatua dala. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. En el turno de respuesta tiene la palabra la señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias. Jarduketei agokenez, nik uste dot aitortu behar jatzula garrantzitsuak izan diran eta beharrezkoak izan diran jarduketak egin dabezala. Baina izan dogun sentsazinoa da a posteriori egiten joan direla, eta nik uste dot ezbardintasun bat egin behar dala hasierako interbentzioaren

inguruan, lehenengo egunean gure ustez ez zalako benetan ondo asmau. Eta kritika eraikitzaile batetik esango deutsut, ez deutsat inori burua moztu nahi une honetan.

Nire ustez, ez zinen gai izan egoeraren neurria baloratzeko. Edonok, nik uste, pentsau eikean 500.000 tona hondakin jausteak izango ebazala ondorioak a priori ikusten ziranak baino handiagoak. Eta beste alde batetik zuk esan dozu koordinazioagaitik ona izan dala. Nik zalantzan jarriko dot, nik uste dot Bizkaian larrialdiak kudeatzeko zentro integral bat martxan jarrita euki arren, hain zuzen be sailen eta Foru-zerbitzuen arteko koordinazio-puntuaren funtzinoa eukana, ba honegaz be ez gara gai izan ondo koordinatzeko. Nik uste dot modu deskoordinatuan jokatu dozuela eta hasieratik ikusi da, eta gainera ondorio garrantzitsuak izan leikez, Diputazio honen ardura diran personen osasunerako. Eta espero dugu gure ustez arduragabekeria izan dan honen erantzule egitea, eta persona horreen osasunari egin beharreko kontrolak eta jarraipena egiteko neurriak hartzea.

Nik ez dakit. Larrialdietako zentroko zuzendaritzaren ardurea zan beste erakunde batzukaz koordinatzea? Noren ardura zan zabortegeian ze material egoan jakitea? Izan be, gure ustez, emoten dau ez zala holakorik egon. Horregaitik dinot ez zala ondo balorau neurria. Nire ustez, ez da gauza bera suhiltzaileak etxe bateko sutean parte hartzea, edo Petronorren sutean. Eta, beraz, ez da gauza bera suhiltzaileek jardutea lur jausi baten, edo zabortegei baten erorketa baten. Protokoloak ezin dira berberak izan. Guk uste dogu hau desbardina izan behar dala.

Zuk koordinazioa aitatu dozu, baina non geratzen da hori suhiltzaileak babesteko? Bestalde, autobideko langileei ha dana garbitzeko esan jakenean, amiantoa egoala jakinarazo jaken? Lurraren egonkortasuna ezagutzeko aurretiazko lanik egin zan? Baloratu zan zelan eragingo eutsan autobidea garbitzeak isuriaren egonkortasunari? Nik uste dot pauso horreek ez zirala emon.

Hori da guk uste doguna, ez zela koordinaziorik egon. Hori hasikeran. Egun batzuk igarota, deskoordinazio hori egon da barriro, Zaldibarko hondakinen lekualdaketari jagokonez behintzat, Bizkaiko zabortegei jagokenez. Uste dot hau argitu gabe dagoala hondino, Jatara joango ete diran, Artigasera joango ete diran. Nik uste dot garrantzitsua dala zuk hori argitzea. Eta guri iruditzen jaku ez dela arduratsua izan eta zuek hedabideetan esaten dozuenean hori ez dala gertatuko, une honetan behintzat jarduketaren bat egin behar dalako edo, eta guk espero dogu zabortegei horreen ingurumen-legedia aldatzeari buruz ez izatea. Espero dot bigarren interbentzioan gai horreek guztiak azaltzea, eta eskatu gura neuskizu, eta ulertu daizula gure aldetik azalpenak eskatzeak ez daukala beste helbururik, modu eskasean egin dana adierazi ahal izatea baino, alduketak proposatu ahal izateko, ondoren esango deutsudazanak. Izan be, nire ustez, garrantzitsua da aitortzea gauza batzuk txarto egin dirala, baina zuk esaten ez badeuskuzu, hau ez da autokritika, baizik eta autokonplazentzia. Eta ildo propositiboan, uste dot garrantzitsua dala guk larrialdietan jarduteko protokoloak berrikustea proposatzea. Sailen arteko eta erakundeen arteko koordinazio-dinamikak birplanteatzea. Hondakinen kudeaketa-eredua birplanteatzea, eta, ezinbestean, ekoizpen-eredua eta nahi dogun gizarte-eredua zalantzan jartzea. Eta, azkenik, zerbitzu publikoen pribatizazio-inertziaren eta gauzatzen diran kontrolen birplanteamendua.

Eta amaitzeko, azken apunte bat. Espero dot Zaldibarren gertatu dan zoritxarrak gitxienez ikasteko eta Bizkaian gauzak aldatzeko balio izatea.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, en el turno de respuesta, tiene la palabra el señor Diputado General.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Señora De Madariaga andrea, ez arduratu, nik ez zaituet kritikauko egin beharreko galderak egitearren, inoiz bez, ez arduratu. Esan neizuna da, minutu baten, ulertuko dozun moduan, Aldundiak eskumena daukan alderdiei jagokenetan, ez dogu hori ahaztu behar, eta zuek ezagutzen dituzuenak. Orduan, guk foku horreetan landu dogun eskumen-esparruari jagokonez, larrialdiaren barruan jakina, Diputazio barruko koordinazioa erabatekoa izan da, hori hasteko. Erabatekoa, arazo bape barik, bape, eta jakingo dozue, ze berehala egongo da horri buruzko agerraldi bat be.

Berehalako jarduketei jagokenean. Eguen iluntze baten, luizi batera zoazenean, gauez, hara joan ginan moduan, jarduketak protokoloaren arabera dira, suhiltzaileei eta larrialdietako langileei jagokenez behintzat, larrialdietako operatiboa dana protokolizatuta dago ta. SOS Deiak-ek protokolo zehatz bat zentralizatzen dau gertatu daitekeen edozein gorabeherari buruz. Guk be hurrengo egunean aktibatu genduan Arriskuen Prebentziorako Batzordeagaz zerikusia daukan guztia, hurrengo egunean, momentuan.

Eta badinotsut, hurrengo egunean, goizean, Diputazio geologoen eta Interbiak jarritako prismak baegozala, hurrengo egunean. Beraz, errepidean jardukeran, bagenkian eta magal horren zatia monitorizata geunkan, hori geunkan. Gure aldetik koordinazioak primeran funtzionau dau. Baina beti daukagu hobetzeko, beti. Beraz, ez euki bildurrik galdera horreek egiteko eta guk be galdera horreek egiteko; izan be, barriro dinot, guk be hobetu egin behar dogu, dana da ona hobetzeko, eta holako gorabeherak lagundu egin behar deuskue une bakoitzean hobeak izaten. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Octavo punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

8.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2020/0000351](#))

**Autor:** Fernández Medrano, Héctor (EB)

**Asunto:** Proceder del gobierno foral con la presentación de sus proyectos para el territorio.

**Documento Principal:** ([R.E.11/E/2020/0000351](#))

**Expediente:** ([11/B/25/0000841](#))

8.- Hurrengo idatziari buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan eretxi ezker, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Ahozko erantzun-eskean Osokoa ([11/E/2020/0000351SE](#))

**Egilea:** Fernández Medrano, Héctor (EB)

**Gaia:** Foru Gobernuak lurralderako proiektuak aurkezteko daukan modua.

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2020/0000351SE](#))

**Expediente:** ([11/B/25/0000841](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del diputado que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, el señor Fernández Medrano tiene la palabra, desde el escaño.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Muchas gracias señora presidenta. Egun on. Etorkizunean urrin barik gaur hona dakargun kezka horri beste forma bat emongo deusagun arren, interesgarria erexten deusagu galdera hau Kontrolerako Osoko Bilkuran planteatzeari, Foru gobernu higiene demokratikoaren kontu honetan nondik dabilen igarteko be.

Hemen gagozanetik egiaztatu dogu Aginte Planaren barruan garrantzitsuak diran ekimenak batzuetan kanpoko espazioetan edo elementuen aurrean aurkezten dirala, komunikabideetan kasurako, eta gero hemen, eta orduan be era bateko edo besteko eskaeren bidez. Eta beste batzutan hori bez, ez Osoko Bilkuran ez batzordeetan eztabaidatu barik geratzen dira. Halango dinamikek Bizkaiko Gobernura ekarri leikien ardurabakokeria kezkatzen gaitu. Orduan, honako galdera hau egiten dogu, Elkarrekin Podemosek, erraza dana: zergaitik aurkezten ditu Foru Gobernuak bere ekimenak eta proiektuak kanpoko instantzien, komunikabideen, jardunaldien eta abarren aurrean, Bizkaiko Batzar Nagusietan egin beharrean? Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Responde el señor Diputado General.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Buenos días de nuevo. Señor Fernández, buenos días.

Para dar respuesta a esta pregunta deberíamos saber cuáles son las funciones del Legislativo y del Ejecutivo. Eso es absolutamente importante. Cuáles son las normas que tenemos en vigor y leerlas para saber cuál es esa función. Saben ustedes que nuestro reglamento es la norma 3 de 1987, la Norma 3/87 en concreto, y en esa distinción las funciones de legislación y ejecución aparecen bien definidas en esos artículos concretos que en ella aparecen.

Nik bai aitatuko ditut Batzar Nagusien hiru funtzino handi, ez naz errepikatuko baina nik uste dot garrantzitsua dala guztiok jakitea hori. Nagusia da foru-arauak ematea, Batzar Nagusi honeen eskumen-esparruagaz zerikusia daukan guztia arautzeko, garapen-dekretuez gainera. Baina baita bultzatzeko funtzinoa be, Bizkaiko Foru Aldundiaren kontrola bultzatzea. Horretarako, beharrezkoa dan informazioa behar dabe. Eta baita garaia danean Diputadu Nagusia izendatzearena be.

Guk exekutibo gisa, organo demokratiko gisa, sistema demokratiko guztiak bezala, guri jagokuna erabagiak hartzea da. Zein da bien arteko hartu-emon? Gu behartuta gagoz, hain zuzen be, Batzar Nagusietara, osoko bilkuretara, batzordeetara eta abarretara joatera; eskariei eta galderei jaramon egitera, interpelazinoei, aurkezten diran mozinoei, eta behar den informazioa aurkeztera.

Zuk esaten deustazu: agerraldi-eskaerak erabili behar dituzue informazioa batzeko. Izan be, mekanismoetako bat da, sistema demokratiko orok zehazten dauen mekanismoetako bat da, eta gurea be bai, jakina, zuek behar dozuen informazio guztia batzeko. Beraz, ez zaitezte kexatu, hori dalako Batzarren aldetik informazio hori batzeko daukagun sistema. Mekanismoetako bat da.

Foru Aldundiko exekutiboaren funtzinoa, erabagiak hartzearena, baita be ekintza horreen eta erabagi horreen barri herritar guztiei emon behar deutsegula. Gure betebeharra hori da, gure eskumen-esparruaren barruan, eta dakigun modurik onenean egiten dogu, eta egin geinken hedapen eta gardentasun handienagaz 2020rako Bizkaia honetan. Gure betebeharra dalako baita be erabagiak hartzea eta gizarte osora zabaltzea. Eta hori ez da kanpoko bitartekoak erabiltea, inondik be, guk egin behar doguna da eskura ditugun bitarteko guztiak erabili, ze Exekutiboak hartzen dituan erabagien azken hartzailea eta bakarra, ez dira Batzarrek, gizarte da, herritarrak dira. Beraz, Batzarretan informazioa emotea bai, horretan hobetu behar badogu hobetzeko prest, baina Batzarretan informazioa emotea bai, baina gure hartzailearentzat eta gizartearentzat gagoz. Eta hori erabateko gardentasuna da. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Responde el señor Fernández Medrano.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Gracias señora Presidenta.

Galdera komunikabideen kaltean interpretatu ahal izan bada, jakina, ez da bape ondo ulertu nik esandakoa. Nire interbentzioa kezka batek eraginda eta erakunde honi balioa emotearren sortu da. Hau da, Bizkaiko herritarrak ordezkatzeko dituan eta partaidetzarako organo gorena dan hori, errutina jakin batzuen bidez, ahultzen edo edukia galtzen joan daitekeen susmoagatik.

Lehen esan dozun moduan, bai Ganbera honetako araudiak bai gardentasunari buruzko Foru-arauak gobernu-ekintza kontrolatzeko funtsezko funtzino hori azpimarratzen dabe, gure erakundeak maila guztietan legitimatzeko. Alde horretatik, uste dogu ez dala nahikoa Agintaldiko Planetik interesatzen jakuzan gai partikularrei buruz agerraldiak eskatzeko gaitasun formala. Era berean, uste dogu ez dala nahikoa modu informalean, eta guk Sailei idatzitako galdera batzuen bidez, agerraldiak eskatzea halakoak azaltzeko. Eta, uste dogu inondik be ez dala nahikoa ekimen zehatzen xehetasunen barri egunkarien bidez hartzea. Jakina, talde gisa bitxia egiten jaku dibulgaziorako guatekeetan parte hartzea San Inazio egunean, biztanleriaren zati handi bateri batzarkideak enpresekin batzea arraroa egiten jakon moduan. Baina gehien baten ez dogulako uste hori danik lekua. Edozelan be, azpimarratu gura genduana da halako errutinek, beharbada, demokrazia alderdikoi honi zor zaion garbitasun minimoa urratzen ete daben.

Ezin dogu nahastau Aldundiaren lana ikusarazteko arazoa Bizkaiko Legebiltzarraren funtzionamentu demokratikoagaz. Ulertzen dot helburu horreek askotan alkar zapaltzea, baina ezin dogu marketina demokraziagaz nahastau. Azken horretan bitartekoak helburuak bezain garrantzitsuak dira, horreek zeozelan aurrekoak mugatzen dabezalako. Edozein kasutan, uste dot gure esku dagoala eztabaidazaleak entretenitzera datozen lekua ez izatea, ez gaitezkan demokrazia apaingarri bat edo demokrazia mediatiko bat bihurtu, Zuzenbide Estatua eretxi-estatuagaz ordezkatzeko dauena.

Ha ta guzti be, amaitzeko astirik barik azkenengo 30 segundotan, Foru-erregimena aitortu behar dala uste dot, eta Ganbera honi buruz berba egiten danean ez daitela izan beti haren mendetako jatorria gogoratzeko bakarrik, edo Rousseauk argi-ibilbide hori zelan ziurtatzen eban azaltzeko bakarrik, horrez ganera zeozelan beste eduki bat emoteko be, argi itxiko deuskuna demokrazia ez dala gobernu-ekintza modu eraginkorragoan edo ez hain eraginkorrean egitea bakarrik, ezpada, gobernu-ekintza hori talde guztiek modu eraginkorrean ikuskatzeagaz be badaukala zerikusia. Jakina, ez dakit zelan orain zeozer proposatu, baina badakigu Bizkaia serio hartzeak eta haren izena okerrerako ez erabilteak zerikusia daukala Diputazioaren eta Batzar Nagusien arteko informazio-mobimentua bideratzeagaz eta eraginkorrago egiteagaz, eta aurrerago horri buelta bat emongo deusagula. Parkatu hain arin joatearren.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, para responder toma la palabra el señora Diputado General.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Señor Fernández, tengo poco tiempo, baina itxi nauzu, barbarik barik itxi nauzu, berbarik barik, benetan dinotsut. Batzarron lana ahultzea deritoxo zuék Aldundiko Gobernuari agerraldiak eskatu behar deutsezuezalako? Nik uste dot ez ditugula gauzak nahastu behar. Zuek batzarkide talde bezala lan bat daukazue. Batzar honeek defendatu behar dituen Bizkaiko gizarte osoa da, gugandik hasita, baina bai

defendatzen dogul, bai horixe. Batzuk, talde politiko batzuk ez dabe gura Bizkaian parlamenturik egoterik. Begitu zeun buruari, begitu mesedez. Baina Bizkaian eskumen argiak dituen legebiltzar bat egotea nahi duenak, ez begiratu eserlekuen alderdi honetara, eta ez begiratu Gobernuari be. Gobernuak gura dau gobernu izatea, exekutibo bat, eta Bizkaian parlamentu bat egotea. Benetako parlamentua, daukaguzan baino eskumen gehiagogaz be. Beraz, nahastea Batzarron lana zikintzearena, informazino-eskaerak egin behar izateagaitik, edo... Nenetan, Fernández jauna, beharbarda barriketaldi bat egin edo kafe bat hartu behar dogu behar bezala azaltzeko, ze nik, benetan, ez dot ulertzen.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Noveno punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

9.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2020/0000363](#))

**Autor:** Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

**Asunto:** Servicios de Bizkaibus para acceder a Gaztelugatxe.

**Documento** **Principal:** ([R.E.11/E/2020/0000363](#))

**Expediente:** ([11/B/25/0000845](#))

9.- Hurrengo idatziari buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan eretxi ezker, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Ahozko erantzun-eskea Osokoa ([11/E/2020/0000363SE](#))

**Egilea:** Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

**Gaia:** Gaztelugatxera joateko Bizkaibus zerbitzuak.

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2020/0000363SE](#))

**Espediente:** ([11/B/25/0000845](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: La diputada que ha presentado la pregunta, señora Arriola Alzola, tiene la palabra.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Buenos días a todos y todas. Dirigimos esta pregunta porque en la última reunión de la Comisión el señor Pradales nos dijo que ese aparcamiento que se va a construir en el collado de Gaztelugatxe quedará hasta después del verano o para su revisión, bajo tres condiciones. Por un lado respetar ese aforo de 3024; por otro, asegurar que no se aparque mal, que no haya irregularidades en ese sentido; y por otro, que el transporte público funcione bien, por lo que la pregunta viene de ahí. ¿Qué esfuerzo especial va a hacer la Diputación Foral de Bizkaia en relación con la promoción del transporte público? ¿Y qué servicios especiales va a ofrecer Bizkaibus, con qué frecuencia y cuántos Bizkaibus se van a poner para ello en Semana Santa? Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, en el turno de respuesta tiene la palabra en nombre de la Diputación el señor Gómez Viar.

El Sr. **GÓMEZ VIAR** jaunak: Mahaiburu andrea, batzarkideak. Zuk egindako galderari erantzunez, Arriola andrea, zenbat Bizkaibus eta zer maiztasunegaz, esango deusut 2020ko Aste Santurako, Gaztelugatxeko Donibanerako bidesarien eskariari erantzuteko, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaibuseko zerbitzu berezi bat gehituko dauela apirilaren 4tik 19ra bitartean, hau da, jaiegunen aurreko asteburuan eta Pazko aстера arte. Holan, hilaren 4tik 19ra bitartean, egun bi horreek barruan dirala, ordu erdirik egongo da autobusa. Zerbitzu bereziak

ordu erdiro Bakiotik Bermeoraino, 3518 eta 3527 lineen geltokiakaz bat eginda. Zerbitzuak Bakion eukiko dau urteera bat, Bentaldeko geltokitik, eta Bermeon beste bat, Lameratik.

Zerbitzuen ordutegiak goizeko 9etatik arratsaldeko 8ak arte izango dira; Bakiotik zein Bermeotik urtengo da ordu horreetan, eta ordu erdiko maiztasunagaz, dinodan moduan. Hau da, bi lekuetatik indartu, eta ordu erdiro. Holan, Gaztelugatxetik gitxi gorabehera, bai Bermeotik bai Bakiotik urtenda, eta laurenetan eta lauren gutxiagotan pasauko lirateke, gitxi gorabehera.

Gaur iragarten deusuedan zerbitzu hori emoteko, ibilgailu bi jarri behar dira, eta holan, guztira, joaneko 23 espedizino eta itzulerako beste 23 espedizino eskainiko dira. Beste datu bat emotearren, 14,5 km dirala kontuan hartuta, bai noranzko batean, bai bestean, guztira 700 km inguru egingo dabez. Zerbitzua autobus bigaz emongo da, bakotxak 45 eserleku daukaz, 30 leku zutunik, eta 2 mugikortasun gitxiko personentzat. Guztira 72 plaza.

Autobusak, azkenengo biak. Espero dot zure galderari behar dan moduan erantzun izana, eta, bide batez, aprobetxau gura dot esateko zerbitzu horretaz gainera, Gaztelugatxeko Donienera zehazki, San Jose zubirako, martiaren 19tik 22ra, eta maiatzaren leku zubirako be jarriko dirala zerbitzuak. Hau da, urteko lehenengo seihileko honetan hiru errefortzu ditugu, Aste Santuan, San Josetan eta maiatzaren batean. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, en el turno de respuesta, tiene la palabra la señora Arriola Alzola, desde el escaño.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Gracias por la respuesta. ¿En verano la Diputación hará un esfuerzo similar? Y, para continuar, ¿habrá algún servicio especial desde Bilbao? Ha dicho usted desde Bermeo y Bakio, pero no sé si desde Bilbao habrá servicios especiales y coordinación con las oficinas de turismo, y con esos tickets que hay que comprar. No sé si se ha estudiado que en lugar de comprar por internet se distribuya en el propio transporte público. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, responde en representande de la Diputación, señor Gómez Viar.

El Sr. **GÓMEZ VIAR** jaunak: Arriola andrea. Nik galderan ipinitakoari erantzun deusat, Bizkaibusak eta maiztasuna. Nik uste dot goiz dala udari buruz berba egiteko. Goazen ikustera zenbat jente dagoan eta zelan funtzionatzen dauen sistemeak, eta ikusiko dogu udara begira ia beharrezkoa dan, edo ez dan beharrezkoa, ea jentetza espero genduan bano handiagoa dan edo ezarriko dogun zerbitzu honegaz egokia dan. Benetan erantzun deusat galdetu deustazunari. Besterik gabe. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Gómez Viar. Décimo punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

10.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

10.- Hurrengo idatziari buruzkoak azertu, eztabaidatu eta, halan eretxi ezker, bozkatzea:

**Iniciativa Originaria:** Pregunta oral en pleno  
([R.E.11/E/2020/0000364](#))

**Autor:** Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

**Asunto:** Estudio informativo de la línea de metro de Rekalde.

**Documento**

([R.E.11/E/2020/0000364](#))

**Expediente:** ([11/B/25/0000846](#))

**Principal:**

**Jatorrizko ekimena:** Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2020/0000364SE](#))

**Egilea:** Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

**Gaia:** Errekaldeko metroko linearen informazio-azterlana.

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2020/0000364SE](#))

**Espediente:** ([11/B/25/0000846](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Desde el escaño, tiene la palabra el apoderado que ha hecho la pregunta.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Gracias señora Presidenta, buenos días a todos. En abril de 2018 se aprobó por unanimidad en esta Cámara una enmienda transaccional en torno a la línea 4 del metro. En dicho consenso se recogía, entre otras cosas, la necesidad de realizar un estudio informativo garantizando un proceso participativo. En esas mismas fechas se aprobó en el Parlamento un acuerdo de idéntico contenido para la realización de dicho estudio informativo al Gobierno Vasco a través de Euskal Trenbide Sarea.

Dicho esto, nuestra pregunta es ¿qué seguimiento ha hecho la Diputación Foral de Bizkaia al realizar el estudio informativo a lo largo de los años 2019-2020 para garantizar ese proceso participativo? Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. en el turno de respuesta tiene la palabra el señor Gómez Viar, en representación de la Diputación.

El Sr. **GÓMEZ VIAR** jaunak: Mendez jauna, aipatu dozun moduan, 2018ko apirilean zuzenketa bitarteko bat onartu zan. Zuzenketa hori, zure ekimenean be jasoten dan moduan, Eusko Legebiltzarrean gai horri buruz aho batez lortutako akordioa Batzarretara helarazotea zan. Bistan danez, Aldundiak akordio hori Eusko Jaurlaritzari helarazi eutsan; izan be, 2018ko ekainean karguaren lagapen bidez helarazi zen moduan, lizitazio- eta esleipen-prozesua ETS Euskal Trenbide Sareari jagoko, hau da, Eusko Jaurlaritzari, ez Bizkaiko Foru Aldundiari, administrazio bakotzak esleituta dituan eskumenen arabera.

Eta egia esan, zuek ondo dakizuen moduan, horren barri 2019ko urtarrilaren 25ean emon zelako, ETSk Bilboko metropoli-trenbidearen hegoaldeko aldean 4. linearen informazio-azterlana idazteko zerbitzuaren lizitazioari ekin deutso. Urte bereko maiatzean esleitu zan. Eta edozein herritarrek kontratatzailearen profilaren bidez eskura daukan espedientetik atera daitekeenez, egia esan, Oinarri Teknikoen Agirian bertan jasota geratu zan bai Eusko Legebiltzarrean bai Batzar honeetan partaidetza-prozesu bat aurreikusteari buruz hartutako konpromisoa.

Zehazki, baldintza-agiri horretan esaten da lanen lehenengo fasean garraio publikorako hainbat aukera planteauko dirala, eta trazadura-aukerakaz batera eta lehendik dagoan azpiegitureagaz konexinoa egiteko modua be, eta prozesu hori amaitzeko herritarrek alternatiben gainean parte hartzeko prozesua etorriko da. Lanen bigarren fasean, urtenbiderik onenatzat hautatutakoaz, informazio-azterlana egingo da. Gehiago zehazteko, agiri horren 5.2 puntuan, gai hori garatzen da, eta hainbat kontsiderazio ezartzen dira; esate baterako,

herritarrek parte-hartzeko fasearen antolaketa aholkulariak eskaintzan ezarritako metodologiagaz egingo da. Baina, edozelan be, gitxienez interes-talde honeek hartu beharko ditu kontuan: auzoetako auzo-elkarteak, merkatarien alkarteak, hainbat erakundetan ordezkaritza dauken alderdi politikoak, garraioaren edo klima-aldaketaren arloan interesa dauken elkargo eta alkarte profesionalak, alkarte ekologistak edo ingurumenagaz edo klima-aldaketagaz zerikusia daukenak, erakunde publikoak, udalak, Aldundia, Eusko Jaurlaritza, garraibideen operadoreak, eta baita xede soziala garraioagaz eta hiri-garapen jasangarriagaz lotuta dauken GKEak be.

Beraz, zure galderari erantzunez, uste dot agirikoa dala administrazio publiko guztiek amaituko dabela aztertutako alternatibei buruzko herritarren parte-hartze prozesu bategaz. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, en el turno de respuesta en nombre de la Diputación, tiene la palabra el señor Méndez Urigoitia.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Gracias de nuevo, señora Presidenta. Señor Gómez Viar, lo que está claro es que las peticiones que hicieron las Juntas Generales y el Parlamento Vasco en el año 2018 se han retrasado en el tiempo. Y eso quiere decir que la deuda histórica que ambas instituciones tienen con el barrio de Rekalde se prolonga una vez más en el tiempo, porque creemos, y lo tenemos mucho más claro después de su intervención, que la Diputación Foral de Bizkaia no está realizando la labor que le corresponde en este caso.

Si se solicitaba desde esta Cámara la realización de un estudio informativo que garantizara un proceso participativo, su Gobierno debería saber si efectivamente lo está haciendo así o no. No le pedimos los resultados del examen, le pedimos que se ajuste a lo acordado y que se asegure de que se está realizando correctamente.

EH Bilduk metroa Errekaldera heltzearen alde egin dauen apustua argia eta argia izan da, eta Bilboko hegoaldeko auzoetako biztanlegune nagusien erdigunera helduko dan metro-zerbitzu baten oinarritzen da, Errekalde eta Irala batez be, eta, horretarako, beharrezkoa da oraingo 1. lineagaz, 2. lineagaz eta uri-inguruko 3. lineagaz lotzea. Baina EH Bilduk Errekaldeko plataformaren eta bizilagunen eskaera batzuk bideratu zituan, partaidetza-prozesu baten bidez eretxia emon egien aitatu dozun azterlanean aurkezteko alternatibei buruz, Bilboko metropoli-trenbidearen 4. linearen eta hegoaldeko aldearen informazio-azterlana idazteko zerbitzua, 2019ko maiatzaren 9an esleitura, 12 hilabeteko epeagaz egiteko.

Zuk fase biak azaldu deuskuzuz, bat fasea, eta ondo adierazi deuskuzu lehenengo fase honen amaieran, Ganbera honek zure Gobernuari eskatu eutsan prozesu parte-hartzailea martxan sartuko aela, eta prozesu hori aurrera eroango zala. Gómez Díaz jauna, 12 hilabeteko exekuzinoa, eta 2019ko maiatzaren 9tik 2 hilabete baino ez dira geratzen informazio-azterlan hori jasoteko, eta Errekaldeko eta Iralako bizilagunei ez deusie ezer galdetu, ezebez. Ez dabe Fulturren eta CAFen artean sortutako ABEEaren barririk, ha izan zann eta zerbitzu horren esleipena hartu eban enpresa.

Zeuk zuzenean egiaztatu gura badozu, tribunan metroa Errekaldera plataformako kide bat daukazu, eta pozik egongo da informaziorik ezaren eta babesgabetasun egoeraren barri emoteko.

Señor Gómez Viar, cumpla su palabra, cumpla con la responsabilidad que tiene su Gobierno en la elaboración del estudio informativo. Eso es todo lo que le pedimos, el barrio de Rekalde estoy seguro de que se lo agradecerá.

Hori da zure konpromisoa, hori da Ganbera honek aurrera eroateko eskatu deusuna, eta Ganbera honek eskatu eutsun zuri eta zure Gobernuari prozesu parte-hartzaile hori aurrera eroateko. Hainbat konpromisori buruz berba egin deuskuzu, baina ez deuskuzu frogarik bape emon partaidetza-prozesu hori gaur egun martxan dagoela erakusteko, eta informazino-prozesua amaitzeko geratzen diran bi hilabeteetan emongo danik be. Sin más. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. En el turno de respuesta, señor Gómez Viar, tiene la palabra..

El Sr. **GÓMEZ VIAR** jaunak: Méndez jauna, deigarria egiten jat guri leporatzea azterlanaren ustezko atzerapena eta emaitzak zein izango diran. Tira, zuk galdetu deustazuna da zer jarraipen egin dauen Bizkaiko Foru Aldundiak 19an eta 20an zehar, prozesu parte-hartzaile bat planteatzeko. Nik uste dot emon deusudan erantzuna nahiko argia izan dala. Eusko Jaurlaritzak, ETSren bidez eskumena daukan administrazioak, Batzar Nagusietan sinatutako akordio bat dauka Informazino Azterketaren Kontratuaren Oinarri Teknikoen Agiri horretan oinarrituta. Epigrafe oso bat dago, alternatibak planteatzeko fasea aztertutako alternatiben gainean herritarrek parte hartzeko prozesu bategaz amaituko dala bermatzen dauena. Ez jako prozesu horri heldu, baina tira, nik gogorarazi gura neuskizu beharbada hau ez dala hori eskatzeko lekua. Nik uste dot egokiagoa izango litzatekeela Eusko Legebiltzarrean eskatzea, han be legebiltzar-taldea daukazue eta, jarraipen hori egiteko leku askoz eragingarriagoa dalako, ez hemen. Besterik gabe.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Gómez Viar. Y agotado el orden del día, y antes de que finalice la Junta General, quiero recordarles que el viernes de la semana que viene, día 6 de marzo, tendremos una Junta Extraordinaria de Mujeres Electas de Bizkaia.

Dicho esto, ha terminado la Junta General. Buen día para todos ustedes.

Batzarra 12:35an amaitu da.

Se levanta la sesión a las 12:35 horas.